



XARMA-ONDDOA

ONDO LARANJA

URKI-ONDDOA

NIZKALOA

ESNEARDOTSUA

LAKARIA ARRUNTA

ASTAPUTZ ERRALDOIA

KATAMOTZ-BELARRIA

ELUR BOLA

ANIS-AZIBELTZ

EZKO HORI-ZURIA

ESNEKI LARANJA

KAZPIBELTZ ERAZTUNBIKO

EZAGUTU ITZAZU!

EUSKAL HERRIKO
ONDDOAK

EUSKAL HERRIKO ONDDOAK

ONDDOAK



ZIZAHORI FALTSUA (*Hygrophoropsis aurantica*)



EZKO HORI-ZURIA (*Hygrophorus chrysodon*)



ESNEKI LARANJA (*Lactarius auranticus*)



ESNEKI ZURI ORRIBILDUA (*Lactarius piperatus*)



ZIZA HANKAURDINA (*Lepista nuda*)



ESNATOA (*Lactarius volemus*)



EUSKAL HERRIKO
NATURA


IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA
ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkarte herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

AURKIBIDEA

Hamabigarren urtea - 82.zk - 2014ko AZAROA-ABENDUA - 6 €

EDITORIALA



Udazkena hasi berri da eta ale honetan gure basoetan hazten diren perretxikoen mundu zoragarria eta honen espezie ezberdinen multzo bat ezagutuko dugu.

Orain ezagutuko ditugun espezieak Agaricus, Hygrophorus, Inocybe, Laccaria, Lactarius, Leccinum, Lentinus, Lepista, Lycoperdon, Lyophyllum eta Macrocystidia generoen espezieak dira.

Perretxikoak jasotzeko zaletasunak gora egin du azken urteotan. Hala eta guztiz ere, espezieak ondo ezagutzen ez badira, hauek batzea ez da gomendagarria. Bestalde, perretxikoak batzen direnean jakin behar da nola egin. Laban batekin moztu behar da enborra eta inoiz ez sustraietatik atera.

Bestalde, jan ezin daitezkeen perretxikoak ez dira bota behar, ezta pozoitsuak direnak ere. Horiek guztiak ere funtzio ekologikoa betetzen dute.

Fernando Pedro Pérez
(Zuzendaria)



Elur bola	4
Kazpineltz eratzunbiko	5
Agaricus haemorrhoidarius.....	7
Aspibeltz odoltsu	8
Anis-azpibeltz	11
Azpibeltz tinta-sain-argia	13
Zizahori faltsua	14
Ezko hori-zuria.....	15
Olerkari-ezko	16
Martxoko-ezko	17
Hygrophorus penarius	18
Suge ziza mingotsa	19
Suge ziza gozoa	20
Suge ziza teilakolorea	21
Inozibe hiltzailea	22



Inozibe lotsatia.....	23
Lakaria arrunta	24
Esneki laranja	25
Pagardi esneki berdea	26
Esnei zuri orriarrosa	27
Esneki zuri orribildua	29
Esneki arrunta	30
Esneardotsua	32
Esnegorri faltsua.....	33
Esnatoa	34
Xarma-onddoa	37
Ardagi mehea	39
Ziza mordoskatua	41
Ziza hankaurdina	43
Bitigar mingots	46
Trikuputza	47
Astaputz ilunai	49
Ziza zauli	51



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta.
Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilarit-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Elena Carriedo.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 4.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 475 28 83. e-maila: adeve.2@euskalnet.net

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarte.



ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO
IKASKUNTZA

Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia
Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZAren
arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

ELUR BOLA (*Agaricus arvensis*)

DESKRIBAPENA: bere txapelak 25 zentimetroko diametroa du. Hasieran txapel esferikoa da, gero ganbila eta azkenik laua. Txapeleko azala zurixka da baina horitzeko joera du. Azal leuna da, edo zuntzekatsua, eta maiz askotan pitzatua, hezetasun eta tenperaturaren bat bateko aldaketen arabera. Orri libre eta hertsia, hasieran zurixkak, gero arrosak eta azkenean kolore marroi-ilun eta beltzen tartekoak. Hanka mardula, zilindrikoa eta gutxi gorabehera luzea. Oinaldea lodiagoa du eta eraztun gainetik zuriagoa baina azpitik horixkagoa. Eraztun hori goialdean du eta bikoitza da. Goikoa, edo benetako eraztuna, leun eta mintzaira eta behekoa



matazatua. Beheko eraztun hau errezel orokorrak utzi du eta "gurpil horztun" aren forma du. Esporak eliptikoak eta kolore arre-ilunekoak dira. Perretixozale askok, aurretik azaldu dugun *Agaricus campestris* dela uste du, baina honen mamia ebakiz gero arrosa kolore aldazten da, ez du anis usainik, txikiagoa da eta eraztun bakuna du, ez bikoitza.

HABITATA: Euskal Herrian arrunta da. Belar artean ateratzen da, "sorginen korro" edo zirkulu-formako talde handitan abere larreetan

JANGARRITASUNA: oso jangarri da.

Mamia trinkoa eta zuria da eta ebakitzen badugu, hasieran hori-zurbilera aldatuko da eta gero okrera. Oso anis usain fina du, oina arraskatuz gero batik bat.

KAZPIBELTZ ERAZTUNBIKO (*Agaricus bitorquis*)

DESKRIBAPENA: txapela 4-10 zentimetroko diametrokoa, mamitsua, hasieran hemiesferikoa, erdigunean lau samarra eta ertza barnera kiribildua, gero ganbila, zuria, zuri-krema eta zuri-okre argia.

HIMENIOA: orriak oinetik bere mamiaren lodiera baino meharragoak, arrosa argiak, arrosa zikinak, zahartzean arre ilunak, ertz antzua kolore zurixka.

OINA: 6-10 x 1-3 zentimetrokoa, zuri samarra, betea, hasieran erdialde loditu samarra, gero zilindrikoa.



drikoa. Hondakin gehiagorekin edo gutxiagorekin, erpinean ezkata gutxi batzuk. Bi alde bereizten dituen sasi bolba batez osaturiko eraztuna, urratu egiten da haztean eta bi torke uzten ditu oinaren inguruan.

MAMIA: trinkoa, txapelaren azalean erraz samar estutzen da, arrosa-laranja ebakitzean, gero grisaxka. Usaina hasieran batean atsegina, sarkorra, zahartzean bizia eta ez-atsegina.

HABITATA: udaberrietik udazkena arte bide eta errepideen ertzetan, karpoforoak asfalto altzarazi dezakeen lekuetan, lugorrietan, parkeetan eta hondartzetan. *Agaricus bisporus* espeziearen antzera, industria-mailan hazten da.

JANGARRITASUNA: jangarria ona da.

AGARICUS BISPORUS

DESKRIBAPENA: txapela: 5 eta 10 zentimetro. Bitarteko. Kolorea, zuri arreska argia. Konbexua, gero hedatua zuntz fin eta azalera zehar barreiatu ezkata-txoekin, eta hegaletan errezel-hondakinak dauzkalarik.

Orriak: Estututa, arrosakarak eta azkenean txokolate kolorekoa.

Hanka: Zuria, mardula, motza, leuna, denbora luzez tinko irauten duen eraztun zuri mintzertua dauka.

Mamia: Zuria, igurtzi, apurtu edo ebakiz gero pitin bat gorritzen da. Usain atsegina du, hurritzarena, eta jakera onekoa da.

HABITATA: udan eta udazkenean hazten da, saldoak eratuz zelai, larre, loreto, bide-ertz, eta abarretan.

JANGARRITASUNA: jangarria, kalitate onekoa. "Hazkuntza-txanpinoi" izengoitiz ezagutzen duguna baino gozoagoa gertatzen da.

Espezie toxikoekin nahasketa: gertatzekotan ere zaila izaki, Amanita Hilgarriak diren A. Verna eta A. Virosarekin nahas-



ta daiteke, baina hauek orri zuria eta bolba dauzkate, eta txanpinoietan, kasu honetan Bisporak, orriak arrosakarak izaten ditu eta ez dauka bolbarik, eta hark usain eta jakera onak ere baditu.

BARRENGORRIA (*Agaricus campestris*)

DESKRIBAPENA: txapelak 6-12 zentimetroko diametroa du, hasieran esferikoa eta lodia, baina gero laua. Txapeleko azala batzuetan leuna, zetakara eta zuria izaten da, noizbehinka hori samarra, eta bestetan ilunagoa eta leuna edo ezkatatsua, barietateen arabera. Orri libre eta hertsia, hasieran arrosak, gero lilak eta azkenik marroi ilunak, ia beltzak. Hanka motza, lodia, betea eta zurixka. Goialdean eraztun bakun, mehe eta hauskorra du, batzuetan desagertua. Esporak marroi ilunak eta eliptikoak.

Euskal Herrian gehien ateratzen den perretixiko jangarrietakoa da. Taldeka ateratzen da, "sorginen korroak" izeneko talde handitan, batez ere simaurra duten larreetan. Udaberrian kontuz ibili behar da kolore zurikoa den Amanita vernarekin ez nahasteko. Azken perretixiko hilgarri honek oinean bolba du eta bere orriak zuria dira, ez arrosak, eta ez beltzak.

HABITATA: belardietako perretixikoa da. Basotik kanpo aur-



kitzen da beti. Udaberrian ateratzen da, euririk egiten ez duen udan desagertzeko, baina gero eurialdia ailegatzen denean, berriro ateratzen hasten da, udazkena joan arte, batik bat abere larreetan batik bat.

JANGARRITASUNA: jangarria ona da, baina ez du merezi ale zaharrak eta ia orri beltzak dituztenak jateak.

AGARICUS HAEMORRHODARIUS

DESKRIBAPENA: txapela 8-15 zentimetrokoa, hasieran batean esferaerdi-formakoa, erdialdea apur batean laua, gero ganbila-trapezoide itxurakoa eta ganbila eta laua, aski mamitsua, ertzean errezel orokorraren hondakin finak. Marroi-hur kolorekoa, arre-gorri-ka ilun samarra, txapel-azalean ia trapezoide-formako ezkatat, haritsuak eta itsatsiak, ia kolore berekoak eta gainazal guztia estalirik. Orriak ez oso zabalak, arrosa bizi-haragi kolorekoak edo gorriak, zahartzean marroi-purpura ilunak, ertz antzu argiagorekin. Oina 8-



15 x 1-1,5 zentimetrokoa, 2,5-4 zentimetro bitartekoa erraboilean, gutxi gorabehera zilindrikoa eta zenbaitetan berezko duen luzakina erraboilaren oinarrian, kofaduna, hasieran zuria eta behe-erdia ezkatetz estalia. Ukitzean gorri kolorea hartzen du eta lehorteaz tonu beltzaxkak hartzen ditu. Eratzuna goialdean, itxuraz bikoitza ezkata arreengatik, zentrokideak.

Mamia oso gorria, arrosa-odol kolorekoa ebakitzean, gorri-odol kolorea hartzen du eta argitu egiten da denborarekin. Usain ahula, ia aditzen ez dena. Schaefferren erreakzioa, negatiboa.

HABITATA: udazkenean hazten da, hostozabalen basoetan, batez ere hariztietan, gaztainadietan eta pagadietan.

AGARICUS ESSETTEI

DESKRIBAPENA: txapela 5-10 zentimetrokoa, zuria, zeta-antzekoa eta ia leuna, horitu egiten da ukitzean, ez oso mamitsua, hasieran ezkila-formakoa, gero ganbila eta laua.

Oina 10-12 x 1-2 zentimetrokoa, eskuarki txapelaren diametroa baino apur bat luzeagoa, zeta-antzekoa edo haritsu samarra, kolore berekoa, kofaduna, errabolduna eta nabari bazterratua, zenbaitetan 2,5-3 zentimetrotan beheratua. Eratzuna goialdean, handia eta mintzezkoa, azpialdean gurpil horztun ez oso nabaria, kolorez zuria eta ukitzean horia.

Mamia zuria edo apur batean haragi kolorekoa oinarren muturraren kanpoko aldean, pixkana-pixkana horitu egiten da eta anis edo almendra usaina dario. Himenioa orriak oinetik berex, finak eta mehe samarrak, hasieran kolorez argiak, gero gris-arrosak



eta zahartzean nabar ilun samarrak, ertz antzu argiagorekin.

HABITATA: espezie aski arrunta gure lurraldean, udan eta udazkenean hazten da, konifera-basoetan eta baso bitarikoetan.

JANGARRITASUNA: jangarria ona da.

AGARICUS IMPUDICUS

DESKRIBAPENA: txapela 5-12 zentimetroko diametrokoa, hasiera batean esferaerdi-formakoa, gero ganbila, zahartzean aski laua, zenbaitetan erdialdea pixka bat loditua. Hondo zurixkaren gainean arre-txokolate koloreko ezkata zentrokideetan bananduriko txapel-azala, ertza argiagoa, erdialdea kolorez marroi iluna, zenbaitetan marroi-gorri-ka, purpura-ardo kolorekoa edo purpura-gorri-ka, zahartzean marroia eta purpura-arreak.

Oina 6-12 x 0,8-2,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina aski errabolduna edo loditua, sarri askotan mizelio-lorriekin, kolorez zurixka, haritsua eta oinarrian arre kolorea nagusitzeko joera.

Eratzuna goialdean eta bakuna, mintzezkoa, oina-



ren goiko herenean kokatuta, zenbaitetan arre koloreko ezkata zentrokide samarrekin. Mamia zuria edo arrosa samarrak oinak eta txapelak bat egiten duten puntuan. Fruitu eta baratxuri nahasiei darien usaina, gutxi gorabehera lepiota cristata espezie-arenaren antzekoa. Schaefferren erreakzioa, negatiboa.

Himenioa orriak oinetik berex, ez oso zabalak, hasieran argiak, gero arrosa-haragi kolorekoak eta

HABITATA: konifera basoetan hazten da, oso arrunta da udan eta udazkenean Euskal Herriko *Pinus insignis* basoetan.

JANGARRITASUNA: jangarri ona da.

ASPIBELTZ ODOLTSU (*Agaricus langei*)

DESKRIBAPENA: txapela 5-10 zentimetrokoa, hasieran ganbila, heltzean ganbil-laua, ezkata haritsuez estalia, itsatsi samarrak, kolorez marroia eta erdialde ilunagoa.

Orriak hasieratik eta luzaroan arrosa argiak, gero marroi ilunak, mamiaren lodiera baino estuagoak, ertz antzu argiagoa. Eratzuna goialdean, fina, gutxi gorabehera gona formakoa, iraukorra, ertz lodi samarra eta gurpil horztuna, ez ordea arvensis espeziearen moldekoa, eratzunaren azpiko ertzean baizik. Ertz arre samarra.

Oina zilindrikoa edo fusiforme samarra, ale hauetan beti txapelaren diametroa baino motzagoa, kofadun samarra eta muin itxurakoa. Eskuarki ia erabat zilindrikoa eta txapela baino luzeagoa izan ohi da oina.

Mamia ebakitzean tonu gorri-laranja hartzen ditu, ez oso biziak, oinaren azalean eta txapela eta oina batzen diren aldean izan ezik. Usain azido-fungikoa, fina eta suabea, ez nabarmena. Schaefferren erreakzioa, negati-



boa. Oina igurztean gorritu egiten da.

HABITATA: Urbanan, Pagoen azpialdean.

JANGARRITASUNA: jangarri ona da.

AGARICUS MACROSPORUS

DESKRIBAPENA: txapela 10-40 zentimetroko diametrokoa, mamitsua, hasieran esferaerdi-formakoa eta globo-formakoa, ezkatez estalia, zenbaitetan ezkataduna eta arrakalatu, hasieran zuria, ukitzean limoi kolorekoa, zahartzean zuri-okrea eta okre zikina.

Oina 8-16 x 2-5 zentimetrokoa, zuria edo txapelaren kolore berekoa, eskuarki lodia, gutxi gora-behera mintzekoa, borra-formakoa eta ia fusiformea, oinarria sustrai-itxurakoa edo, oso gutxitan zilindrikoa, kotoiantzekoa edo ezkataduna oinarri aldean.



Eraztuna

goialdean, handia eta zabala, kotoi hondakinekin gurpil horztunean, zuria edo okre samarra, gutxi batzuetan mintzekoa eta zahartzean ezkatez estalia beheko aldean.

Mamia zuria, oinean hori-gorrixka samarra, oinarritik gora okre-laranja. Hasiera batean almendra garratzaren usaina du, baina ale zaharrei pixa usain ez atsegina darie. Schaefferren erreakzioa zalantzakoa da batzuetan, eskuarki laranja kolorea hartzen du. Himenioa orriak oinetik berex, hasieran arrosak, gero marroi-ilunak. Ertz antzu argiagoa.

HABITATA: udaberritik udazkena arte hazten da espezie hau. Mendiko soro eta larreetan hazten da, taldetan, belarren artean edo ipuru eta txilarretatik hurbil, kareharrizko zoruetan. Oso arrunta da Urbasa eta Aralar mendialdeetan.

JANGARRITASUNA: jatekoa, kalitate onekoa.



AGARICUS MELEAGRIS

DESKRIBAPENA: txapela: 5 eta 10 zentimetro bitartekoa. Konbexua eta azkenean irekia, arre marroia, ukitzean koriratu egiten duelarik.

Orriak: Estututa, grisak, gero arrosak eta azkenik marroi ilunak.

Hanka: Laburra ez, zilindrikoa, erreboil ertzeratua, ebakitakoan horiz orbanduz, gero orbainak desagertzen dira eta arre marroia ematen. Eraztun zabala, zuria, baina ukituz gero horitu egiten dena. Mamia: Zuria, horizatu egiten da, gero marroi bilakatuz; usaina eta jakera ezatseginak dira.

HABITATA: Udan eta udazkenaren hasieran, pago eta haritz basoen agerruneetan.

Espezie jangarriekin nahasketa: Agaricus hemorrhoidarius eta Agaricus silvaticusarekin nahasta daiteke, baina haueetan mamia gorritu egiten da eta usaina eta jakera gozoak dira; Agaricus meleagrisen, ordea, mamia horixka da eta usaina eta jakera desatseginak ditu.

JANGARRITASUNA: toxikoa, *Agaricus xanthoderma* bezala.



AGARICUS PRAECLARESQUAMOSUS

DESKRIBAPENA: txapela 5-14 zentimetroko diametrokoa, ganbila eta ganbil-laua, zenbaitetan kono-enbor formakoa eta pixka bat zil-borduna ale helduetan, ezkata haritsu finak edo zerra-itxurakoak, kolorez kedar-arreak eta beltzaxkak, erdialdea ilunagoa, hondo zuri samarra, kanpora egin ahala argiagoa, zenbaitetan dena ezkatez estalia. Igurztean horitu egiten da, batez ere ertzean.

Oina 6-14 x 1-2,5 zentimetrokoa, zilindrikoa eta oinarri erraboldun samarra, kolorez zurixka, zeta-antzeko azala eta zenbaitetan izurtu samarra, hori-kromo kolorea oinean, gero arre



zikina. Eraztun handia eta trinkoa, ertz bikoitzarekin, ebakian agerikoa dena.

Mamia zuria, oinaren oinarrian horia, fenol-tinta usaina, alkoholarekin, lixibarekin eta koirekin erreakzionatzen du eta hori-kromo kolorea hartzen, gero arre-gris ilun bihurtzeko.

Himienioa hasieran argiak diren orritz osatua, gero arrosa argi ederrekoak, zahartzean txokolate kolorekoak, ertz antzu argiagoarekin.

HABITATA: espezie aski urria da, parke eta lorategietan hazten dena, zuhaitz eta zuhaixken azpialdean.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

AGARICUS PILATIANUS

DESKRIBAPENA: txapela 5-12 zentimetroko diametrokoa, hasieran ganbila, zahartzean ganbila zabaldua, mamitsua, hondo zuri zikinaren gainean, ezkata haritsu ez estalia, kedar-arre eta arre-grisaxka kolorekoak, erdialdea ilunagoa, ukitzean hori-kromoa, batez ere ertzean, zenbaitetan ezkatez estalia edo arteka-areolaz hornitua, eta txapel-azala nabari da txapela bera baino handiagoa. Oina 5-9 x 1,2-3 zentimetrokoa, zuria eta leuna, zilindrikoa, oinaldean mehetua edo zilindrikoa oinarria loditu samarra duela. Hori bizi-kromo kolorea hartzen du batez ere oinarrian.

Mamia lodia, trinkoa, zuria, oinaren oinarrian eta ebakitzean hori bizia hartzen duena.

Himienioa orriak oinetik berex, estuak, igitai-formakoak edo, hasieran kolorez arrosa argiak, zahartzean marroi ilunak, ertz antzu argiagoarekin.

Espezie hau bi formatan aurkezten zaigu; *f. Silvaticoides*, *A. Silvaticus* espeziearen antzekoa, eta *f. Magnus*, neurri handikoa, mami lodia eta txapela hasieran grisnabarra,



gero ezkata haritsu ilunagoak hondo argiaren gainean.

HABITATA: espezie hau batez ere udazkenean hazten da, espezie erruderala da, lorategietan, lorategietan eta antzekoetan aurkitzen da, batzuetan lur-eremu hareatsuetan eta itxura sendoagoarekin.

BASOETAKO AZPIBELTZ (*Agaricus sylvaticus*)

DESKRIBAPENA: txapela 6-10 zentimetroko diametrokoa, ez oso mamitsua, txapel-azalak oso kolore aldakorra du, kolore arre-grisaxka, arre-marroia eta ezkata nabarmen samarrak, kolorez marroi-gorrixka, arre-arrosa eta arre-grisaxkak hondo argi samarreen, diskoa ilunagoa eta gehienetan leuna.

Oina 6-11 x 1,5 zentimetrokoa, 2 zentimetro ere izan ditzake oinarrian. Oinarria erraboldun samarra da, kofaduna, zuria eta zuri-grisaxka, ia leuna edo haritsu-



ezkatatsu samarra. Eratzuna goialdean, fina, leuna edo apur bat ildaskatua mutur aldera, batzuetan ezkata arrexkak behealdean.

Mamia usain arin atsegina, apur bat fungikoa, kolore gorri-laranja eta gorri bizia hartzen du ebakitzean, lehenengo odol kolorea arrosa samarra. Schaefferren erreakzioa negatiboa.

Himenioa orri ez oso zabalez osatua, arrosa argiak hasieran, gero marroi-arrosa ilun samarrak, oinetik bereiz, igitai-formakoak eta ertzak zurixkak.

HABITATA: espezie hau konifera basoetan ere sor daiteke. Behin batean larre batean ale batzuk aurkitu ziren lpuu batzuen babesean.



AGARICUS ROMAGNESII

DESKRIBAPENA: txapela 5-9 zentimetroko diametrokoa, hemisferikoa, gero trapezio-formakoa eta ganbil-laua, zahartzean erdialdea zertxobait beheratua, zurixka-grisaxka, gris-marroia, zuntzez eta ezkata haritsu ez estalia, kolore grisaxka, erdialdean ilunagoa.

Oina 4-7 x 1,5-3 zentimetrokoa, zilindrikoa edo oinarrian zertxobait loditua, baina ertzean mehetua, mizelio-lokarri sendoak, askotan adarkatuak. Ale gazteetan oinarren oinarrian errezelaren hondakin laburren bat egon daiteke, kolore marroikoa.

Eratzuna: goialdean, fina, mehar samarra, eta azaldu ere ez da egiten askotan. Mamia zuria edo gorrixka, bereziki oinaren goialdean, usain arina eta konplexua, fenolaren antzekoa. Schaefferren erreakzioa



negatiboa karpoforo osoan, oinaren oinarrian izan ezik, laranja kolore argia hartzen baitu han. Himenioa orriak oinetik berex, hasieran arrosa kolorekoak, geri marroi iluna, ertz antzua argiagoa.

HABITATA: udazkeneko espeziea da eta parke eta lorategietan sortzen da *Hacer platanoides L.*, *fraxinus excelsior L.*, *sambucus nigra L.*-ren azpialdean.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Toxikoa da.



ANIS-AZPIBELTZ (*Agaricus silvicola*)

DESKRIBAPENA: txapela 5-10 zentimetrokoa, ez oso mamitsua, gaztetan esferaerdi ia ezkila-formakoa, gero ganbil-laua, koniko kamutsa eta ia titiduna, leuna, hasieran zuri-horixka eta geroago hori-okre kolorekoa.

Oina luze samarra, 10-12 x 1-2 zentimetrokoa, batzuetan oinarrian loditua edo errabolduna, leuna, kolore zuri-horixka eta hori-okre samarra. Eratzuna goialdean, handia, zun-



tzezkoa, ertz lodi samarra eta batzuetan gurpil-formako ezkata batzuk, baina ez oso zehatzak. Mamia hasieran ia zuria, gero horixka eta hori-gorrixka, zapore atsegina, anis usaina biltzerakoan eta anis-almendra usaina igurzterakoan. Schaefferren erreakzioa positiboa argi eta garbi. Himenioa orri ez oso zabalez osatua, hasieran zuri-grisaxkak, gero gris-arrosak eta zahartzean marroi ilun samarra.

HABITATA: espezie hau nahikoa arrunta da eta udan eta udazkenean ateratzen da hala konifera eta hostozabal basoetan nola bitariko basoetan. Jateko ontzat hartzen da, oso zapore lurruntzua duen arren.

JANGARRITASUNA: Jatekoa, kalitate onekoa.

AGARICUS SQUAMULIFER

DESKRIBAPENA: txapela 6-18 zentimetroko diametrokoa, hasieran globo-formakoa, mamitsua, gero ganbila, hasieran zuria, ezkata txikiak tente, ertzen aldean grisaxkak, gero zuria eta ezkata okre-grisaxkak. Ale helduetan batzuetan ezkata handiak izaten dira eta txapelaren azala arraitzen dute.

Orriak ale gazteetan fin eta mehar samarrak, arrosa argiak eta ertz antzua argiagoa, marroi iluna ale zaharretan.

Oina 6-10 x 1-2 zentimetrokoa, hasieran borra-formakoa edo, gero zilindriko samarra, kofaduna, baina mamia trinkoagoa, zurixka, eratzunaren azpian goiko erdialdean ia leuna eta ezkata txiki eta tenteak, arre-grisaxkak, beheko erdialdean. Eratzuna goialdean, bikoitza eta lodia, azpiko geruza gurpil horztunaren itxurakoa, hortz zabal eta lodiekin.

Mamia ebakitzean kolore gorrixka edo laranja-gorrixka ederra du, oso agerikoa beti, usain azido samarra, fruta usain antzekoa ale gazteetan, usain fungiko bizia oso ale heldue-



tan. **HABITATA:** udan eta udazkenean sortzen da hala belardi eta larreetan nola konifera basoetan. Urbasa eta Aralarko mendietan aurkituko dugu.

JANGARRITASUNA: jangarria ona da.

AGARICUS VAPORARIUS

DESKRIBAPENA: txapela: 8-15 zentimetrokoa, gehienetan handia eta mamitsua, ale txikiak ere egon daitezkeen arren, hemisferikoa, kononbor formakoa edo titiduna, marroia eta arre iluna, hasieran leuna, gero haritsua edo ezkata zabal irregularrek osatua hondo zertxobait argiagorearen gainean, ertza barnera-kiribildua eta luzanga.

Oina gehienetan sendoa, 3,5-12 x 1,5-3 zentimetrokoa, borra-formakoa eta ia sustrai-antzekoa, batzuetan erdialdea loditua, zurixka eta erraz arretzen dena. Oinarrian errezelaren hondakin ilunak han eta hemen, hondakin irregula-



rrak, batzuetan ageri ere ez dira egiten, zenbaitetan ia peronatuak, kolore marroi-arrexka. Erantzuna handi samarra azpialdean ezkata batzuekin, hauskorra eta zahartzean urratua.

Mamia zuri-zikina, ebakitzean marroi-gorrixka, txapelaren gainaldean hori-okre kolorea. Usain gozoa, erregaliz usaina, lurrin-txokolate usaina. Erreakzioa: berde oliba burdina sulfatoarekin eta gorri-odol kolorea anilinarekin.

HABITATA: uda-udazkeneko espeziea da, ongarriritako lorategi eta lurretan ateratzen da bereziki. Espezie hau multzo handietan ager daiteke. Txapel-azalaren neurria eta kolorea aldatu egiten dira. Agaricus subperonatus espeziearen antzekoa da oso, eta egile batzuek berdintzat hartzen dituzte.

JANGARRITASUNA: jatekoa, kalitate onekoa.

AGARICUS GENNADII

DESKRIBAPENA: txapela 4-7 zentimetroko diametrokoa, ganbila, gero ganbil ia laua, oso erdialdean beheratua, oso mamitsua, trinkoa, zurixka edo krema-okre kolorekoa erdialdean, leuna, gainazalean artekaren bat izan dezake isolaturik, baita poligono-formako ezkata ere, txapel-azala txapela bera baino handiagoa, "S" formako ertzarekin errezela orokorretik bereizteko unean

Himenioa orriz osatua, orri finak, elkarri itsatsiak, aski meharrak, oinetik berex, hasiera batean arrosa-haragi kolorekoak eta heltzean marroi-txokolate kolorekoak, ertz antzu argiagorekin

Oina 7x2,5 zentimetrokoa, zilindrikoa edo loditu samarra muturrean, sarri askotan puntan amaitua, kolore zurixka edo zuri grisaxka, kolore berezko ezkatetik eta apur batean zentrokideak eta muturrari begira.

Mamia ia zuria, trinkoa, oinaren eta txapelaren elkargunean okre-arrosa ukitu arina duena, lehortu ahalean tonu grisaxkak hartzen dituena. Usain bizia, ez



-atsegina, batez ere ale helduetan, urdaiazpikoa eta gazta batera frijituari darion usaina, pixaren antzeko usaina.

HABITATA: eskuari *Cupressus* eta *Eucalyptus* zuhaitzen azpialdean hazten dira.

Oso espezie urria da.

JANGARRITASUNA: ona jateko.

AZPIBELTZ TINTAUSAIN-ARGIA (*Agaricus xanthoderma*)

DESKRIBAPENA: txapelak 10 zentimetro baino diametroa du, hasieran esferikoa, gero ganbila edo ezkila formakoa eta azkenik hedatua edo ia hedatua. Txapeleko azala hasieran zetakara, leuna eta zuria, baina gero kolore okre samarra duten ezkatatzen da eta, pittin bat igurtziz gero, horitu egiten da, ertzean batez ere. Ertz hau askotan apendikulatua da, errezel himenial edo eratzunak utzitako kondarrez bete. Orriak hertsia eta estuak dira, hasieran zurixkak, gero grisaska-arrosak eta azkenik beltz-marroiak. Hanka luzea, zilindrikoa eta oinaldean errabolduna. Azala leun eta



zuria du, eta igurtziz gero kromo-horia jartzen da, batez ere oinaldean. Eratzun bikoitza du, Goika hauskorra eta matazatua, eta behekoa leuna eta sendoa, gupil horztunaren formakoa. Esporak beltz-marroiak dira, arrautza formakoak. Pozoitsu samarra da. Hala ere oso zaila da pozoitzea, berotzean usain txarra askoz nabarmenagoa baita. Agaricus jangarriekin ez nahasteko, azala igurtzi egin behar da.

HABITATA: Euskal Herrian arrunta da. Udararen eta udazkenean ateratzen da, multzo txikitik zirkuluan, hostozabalen baso ertzetan. Noizbehinka koniferoen basoetan, parkeetan eta zabortegekin inguruan ere atera izan da.

JANGARRITASUNA: ez da jateko.

HYGROPHORUS HYPOTHEJUS

DESKRIBAPENA: neurri txikikoa da, bere txapelak ez ditu 3-5 zentimetro baino gehiago, hasieran kanpai-formakoa, gero ganbila eta azkenik lautu samarra; erdialdea sartua du. Ertz leuna eta biribilkatua. Kutikula oso likatsua eta banagarria, bere kolorea marroixka-oliba da baina ertzak marroixka-laranjatuak ditu, batez ere eguraldi hezea denetan, eta lehorra denetan okrexka-laranjatuak. Orriak zabalak, gaketuak, banatuak eta pixka bat dekurrenteak, hasieran zurixkak, denbora pasa ahala horixka bihurtuz. 5-8x0,5-1 zentimetroko hanka, zilindrikoa, oinalde-rantz estutua eta azala lingirdatsua eta eratzunaren azpial-



dea hori-laranjatu kolorekoa eta zurixka baina horixka kutikularen azpian. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: espezie berankorra da, Urriaren erdi aldetik Abenduaren amaiera arte emetzen da, talde handietan, lur azidoetan, belardietan edo koniferoen basoetan eroritako orrien artean. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: bere zaporea suabea eta gozoa da, bere usaina nabaritu ere ez da egiten.

ZIZAHORI FALTSUA (*Hygrophopsis aurantica*)

DESKRIBAPENA: zizahori faltsuak Clitocyberen itxura du, baina altzodun samarra da. Txapela hasieran ganbila, baina berehala forma zapalagoa hartzen du, inbutuaren modukoa. Bere kolorea gorri-hori eta laranja-hori edo gorrixka-laranja tartekoa da, ilunxeagoa erdialdean. Ilupadun antzekoa. Orriak meheak eta oso dekurrenteak dira, hertsia, urkilatuak eta anastomosatuak, hankaren kolorekoa. Halaber, hanka txapelaren kolorekoa da, edo



ilunxeagoa, batez ere oinaldean. Alde hau gero eta beltzagoa jartzen da eta hortik hanka guztira hedatzen, eta azkenean oso-osorik belzten. Horregatik, mikologo batzuek barietate desberdintzat hartu dute eta var. Nigripes izenez bataiatu. Esporak elipsoidalak, tantadunak eta horixkak edo bestela gardenak.

Hygrophopsis generoko perretxikoen txapelak inbutu-forma du gutxi gorabehera eta orriak urkilatuak eta zainen antzeko samarrak dira.

HABITATA: udaren erdialdean agertzen da eta udazkenaren bukaera arte irauten du. Koniferoen azpian ateratzen da bereziki, nahiz eta Euskal Herrian zaila ez izan gaztainadi edo pagadietan aurkitzea.

JANGARRITASUNA: mamia zurbila da eta bere kolorea krema eta laranja-hori tartekoa.



EZKOZURI LINGIRDATSUA (*Hygrophorus eburneus*)

DESKRIBAPENA: txapela 3-8 zentimetroko diametroa duena, ganbila, gero zabaldua, kutikula lingirdatsua, zuri kolore hutsa, boli-zuri kolorekoa.

Orriak apur bat dekurrenteak, lodiak, bakanduak, zabalak, zurikailak edo apur bat krematsuak heldutan.



Hanka 3-10 x 0,5-1 zentimetrokoa, zilindrikoa, kurbatua, batzuetan zuzena, lingirdatsua, goialdean pikor zuriz apaindua. Haragia zuria, lodia, usaintsua, usain zehaztugabea, zapore gozoa.

Zuri koloreko beste perretxiko batekin nahastu ahal da *Hygrophorus cossus* delakoarekin.

HABITATA: udazkenetan hostogalkorren basoak, batez ere pagadiak.

JANGARRITASUNA: jangai kaskarra.

EZKO HORI-ZURIA (*Hygrophorus chrysodon*)

DESKRIBAPENA: ezko hori zuria espeziearen txapelak 3-7 zentimetroko diametroa du. Zuria eta likatsua da eta ertza horia. Orriak dekurrenteak eta zuriak dira. Hanka zuria da eta goialdean pikortxo horiak ditu. Mami zuria. Ez du, ez usain, ez zapore nabaririk. Espora zuriak, obalak.

Hygrophoraceae familiako espezien orriak oso lodiak eta bakanak dira ea txapelaren azala likatsua gehienetan. Mikroskopioz, basidioak luzangak dira eta esporak zuriak, leunak eta ez amiloideak. Hiru generotan banatzen dira:

1º) *Hygrocybe*: txikiak eta kolore bizikoak, gehie-



nak likatsuak eta zelaletan ateratzen direnak. Mikroskopioz, orri-bilbea erregularra da.

2º) *Camaroohyllus*: neurri ertaineko espezieak. Hanka eta txapela beti lehorrak, likatsuak behin ere ez, orri dekurrenteak eta hauek ere zelaikoak aurrekoak bezala. Mikroskopioz, orri-bilbea irregularra da.

3º) *Hygrophorus*: neurri handiko espezieak. Hanka eta txapela gehienetan likatsuak, eta orriak andatuak edo dekurrenteak. Batzuetan hanka errezelduna. Mikorizakoak dira eta basoetan aurkitzen dira. Mikroskopioz, orri-bilde dibergente edo aldebikoa.

HABITATA: udan edo udazkenean ateratzen da hozozabalen basoetan, batik bat pagadietan.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Jangarri kaxkarra.

HYGROPHORUS LATTABUNDUS

DESKRIBAPENA: txapela neurri handikoa da, hasieran globo-formakoa, gero ganbila, 15 zentimetroko diametroa izan dezake. Ertz leuna, ondulatua eta oso biribilkatua. Bere kutikula distiratsua da eta oso likatsua edo lingirdatsua, kolorea gris-ilunaren eta gris-marroixkaren arteko du eta ertzak kolore margulagokoak. Orri zabalak, lodiak, bakanak eta dekurrenteak, hasieran zuriak eta gero krema kolorekoak. Hanka lodia, 15x15 zentimetrokoa, sabelduna eta fusiformea, hasieran erabat zuria, gero arrexka-oliba kolorekoa; azala oso likatsua eraztunaren azpian eta matazatu, zuria eta pittin bat likatsua eraztunaren gainaldean. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta amiloideak.

HABITATA: espezie hau arraroa da Euskal



Herrian mendi ertaineko koniferoetan eta arrunta Nafarroako Pirinioetako koniferoetan. Uda-udazkenean ateratzen da, kare-lurretan, bereziki "*Pinus sylvestris*"-en azpian.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa, urtsua eta kolore zurikoa, zapore gozoa eta almendra mingotsaren usaina edo.

OLERKARI-EZKO (*Higrophorus poetarum*)

DESKRIBAPENA: txapela 5 eta 18 zentimetro bitarteko. Hasieran konbexua, eta sabeldua, gero irekia; ertza biribildua du. Kolorea zuri arrosa da. Orriak tartekatuak, zurixkak eta dekurrenteak. Hanka goian zabala eta oinaldean argala, txapelekoaren antzeko kolorearekin eta apur bat zuntzeskatua. Mamia zuria eta hauskorra. Jasminaren edo Peruko baltsamoaren usaina. Jakera



emea. Antzeko beste espezie jangarri batzuk *Higrophorus penarius*, baina honek ez du kara arrosarik txapelean. *Higrophorus pudorinus* (hala holakoa). Espezie toxikoekin nahasketa: ez dugu ezagutzen. **HABITATA:** pago eta hostozabalen basoetan. **JANGARRITASUNA:** kalitate oneko jangarria.



HYGROPHORUS AGATAHOSMUS

DESKRIBAPENA: bere txapela hasieran globo-formakoa da, gero ganbila eta azkenik ganbil-lautua, 6-8 zentimetro rainoko diametroa izan dezake. Ertz leuna, ez ildaskatua, ondulatua eta biribilkatua. Azala likatsua da eguraldi euritsua denean, lehorra denean zikina, leuna eta grisaxkaren eta gris-arrekkaren artekoa. Orriak ia dekurrenteak,



gakotuak, tarte dezenteak eta zuri-krema kolorekoak. Hanka 6-8x1-2 zentimetrokoa, zilindrikoa, sarritan kurbatua eta oinaldea zertxobait lodixeagoa. Azala matea, zuntzezkoa, pikorrezkoa puntan eta kolore zuri zikinekoa, baina bere oinaldea grisaxka samarra da kutikularen azpian. Espora eliptikoak,



leunak, hialinoak eta ez amiloideak. **HABITATA:** uda-udazkenean ateratzen da talde ugariak sortuz, kare-lurretan, mendiko konifero-basoetan eroritako orrien artean. Ez da espezie arrunta gure Herriko mendi baxuetan, arrunta da Nafarroako Pirinioetan. **JANGARRITASUNA:** zapore gozokoa eta almendra mingotsen usain nabarmena du.

MARTXOKO EZKO (*Hygrophorus marzolus*)

DESKRIBAPENA: *Russula nigrescens*aren itxura du: txapelaren diametroa 8-15 zentimetrokoa, ganbila hasieran, gero laua, arbel-zuri kolorekoa baina ilunago heldua denean. Txapelaren azala ez da likatsua, leuna da eta ezkatarik gabea. Hanka lodia eta zilindrikoa, hasieran zuria baina gero azpialdetik goraka iluntzen hasten da. Orri lodiak, han-hemenka hertsia, hasieran kurbatuak eta



zuriak, gero dekurrenteak eta grisak eta azkenean ia beltzak. Mami zuria, trinkoa, usain eta zaporerik gabea. Esporak zuriak eta eliptikoak dira, ez amiloideak. Jangarri bikaina eta oso interesgarria, oso zaila baita ateratzen den garaian beste perretxiko jangarri aurkitzea *Hygrophorus caprinusek* ere bere antza du, baina txikiagoa da eta orri dekurrenteagoak ditu.

HABITATA: otsailaren azken egunetan hasten da eta Apirilaren erdialdera arte irauten du. Koniferoen eta hostozabalen basoetan ateratzen da. Euskal Herrian silizezko zoruetan ateratzen dira, pagadi eta pinu gorrien basoetan. **JANGARRITASUNA:** oso jangarri ona da.

EZKO ELURZURI (*Hygrophorus niveus*)

DESKRIBAPENA: txapela 3 eta 5 bitarteko. Kanpaina antzekoa, leun eta bizargabea, ertz ildaskatua gardentasun bidez, higrofonoa baina ez lindirgatsua. Kolorea, elur-zuria errainu horixkekin. Orriak dekurrenteak, zuriak, tartekatuak. Hanka zuria, argala, zilindrikoa, batea, geroago hutsik eta batzuetan kara gorrixkak oinaldean. Mamia mehea, zuria, usain eta jakera ederrak.



HABITATA: zelai eta larreetan, belar artean, Udazkenean eta neguaren hasieran. **JANGARRITASUNA:** jatekoa, kalitate onekoa. Ez du honetako berririk; hala ere, kontuz ibiltzeko aholkatzen dugu, espezie hau *Clitocybe* zuriekin ez nahastatzeko, hauek oso toxikoak baitira. Antzeko beste espezie batzuk *Hygrophorus virgineus*, orain azaltzen ari garenean antz handiagoa.

HYGROPHORUS PENARIUS

DESKRIBAPENA: txapela hasieran globo-formakoa, gero ganbila eta azkenik lautu samarra eta batzuetan sartua, baina forma kamutsa du erdialdean, 12 zentimetroko diametroa izan dezake. Kutikula zertxobait likatsua da eguraldi bustia denean, baina gehienetan lehorra, leuna, matea, zuri-krema kolorekoa eta erdialdea zertxobait okrea. Ertz leuna du, ez ildaskatua eta ondulatua. Orri lodiak, zabalak, gako-tuak, bakanak eta dekurrenteak, zuri-krema kolorekoak. Hanka



lodia eta motz samarra, 6-8 eta 1,5-2 zentimetrokoak, zilindrikoa, oinalderantz estutua, azala zuntzekatua puntan, matea, zurixka eta batzuetan tinta okreak oinaldean. Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: espezie arrunta da Euskal Herrian. Uda-udazkenean ateratzen da, multzo handiak osatuz, kare-lurretan, pagadi hezeetan.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa, gogorra eta zuria, esne egosiaren usaina eta zapore gozoa; % 30eko KOH soluzio tantaz bustitzean kolore horia hartzen du.

HYGROPHORUS PERSONII

DESKRIBAPENA: txapela hasieran kanpai formakoa du, gero ganbila eta azkenik nahiko laua, eta 6-8 zentimetroko diametroa izan dezake. Azala banagarria du, leuna eta oso likatsua edo lingirdatsua, kolore okre-arrexka du, erdialdea, ordea, ilunagoa eta oliba kolorekoa; ertzak, berriz, zurbilagoak, leunak eta biribilkatuak. Orri itsatsiak edo erdi dekurrenteak, banatuak, lodiak eta zuriak. Hanka 10x1 zentimetrokoa, mehea, zilindrikoa, oin estutua; hanka-azala, ostera, oso likatsua eta ñabartua, txapelaren kolorekoa eraztunetik behera; ez, ordea, goialdea, hau zuria, pikorduna eta lika gabea baita. Txapeleko azala amoniakoarekin bustiz gero, kolore berdexka bere-berea hartu ohi du. Amigdala formako esporak, leunak, gar-denak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazken



aldean ateratzen da, silizezko lurretan, maiz talde handietan, hostozabalez osatutako basoetan, artadietan batez ere. Espezie hau arrunt samarra da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mamia lodi antzekoa, zuria, usainik gabea, zapore gozokoa eta harrak erraz erasotzen diotena.

SUGE ZIZA MINGOTSA (*Hypholoma fasciculare*)

DESKRIBAPENA: txapela 2-7 zentimetroko diametroa duena. Ganbila, azkenean zabaldua, hori-laranja erdialdean, sufre-horia ertzertantz, ildorik gabeko ertza, batzuetan errezelaren hondakin ilaunekin.

Orriak berdexka-hori kolore argikoak, heltzean oliba-berde kolorekoak, atxikiak, estutuak, meheak.

Hanka lerdena, mehea, hutsa, zilindrikoa, hori kolorekoak eraztun-itxurako



zona osatzen duten gortina-hondakinekin.

Haragia hori argia, malgua, oso zapore mingotsa eta usain arina, berezia.

Espezie arriskutsua bada ere, okerra izan eta berau jatea zaila da haragiaren zapore mingotsagatik. Tamaina handiagoko eta teila-koloreko *Hypoloma sublaterium* espeziearekin nahastu ahal da, zeinen orriek ez baitute tonu berdexkarik. Izena, *fasciculus* (lat): Sorta. Bere ernetzeko eragatik.

HABITATA: urte osoan mota orotako zuhaitzen motzondoetan sortaturiko talde ugartan agertzen da.

JANGARRITASUNA: toxikoa.

EZKO GIBELGORRIA (*Hygrophorus russula*)

DESKRIBAPENA: perretxiko mardul honen txapelak 5-20 zentimetroko diametroa du, arrosa-zikin kolorekoa eta purpura koloreko ezkatatz estalia, erdialdean batik bat. Gainaldea likatsu antza da eta ertzak biribilkatuak. Hanka mardula eta zurixka da eta goialdean purpura koloreko bikorkadurak ditu. Ez du gortinarik. Orri zabalak, hertsiak, zurixkak, purpuraz orbandurik. Mami zuria eta ardo kolorez



tindatua. Usain ona du. Zaporea pittin bat edo oso mingotsa. Espora zuriak, eliptikoak, ez amiloideak. H. Erubescensekin nahas liteke, baina koniferoen azpian ateratzen da, oso mami mingotsa du, txikiagoa da eta igurtziz gero bere mamia horitu egiten da.

HABITATA: arrunta udazkenean, hostozabalen basoetan, batez ere harizti eta pagadietan

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, oso mingotsa baita.

SUGE ZIZA GOZOA (*Hypoloma capnoides*)

DESKRIBAPENA: txapelaren neurria desberdina izan daiteke, 2-6 zentimetroko diametrokoa. Txapel ganbila da. Kolore okre-zurbil eta hori-okre tartekoa du, baina erdialdea ilunagoa da eta laranja antza. Orriak hertsiaik, andatuak, hasieran zurixkak eta gero-grisaskak. Hanka zilindrikoa da, eraztunik gabea, kolore zurixkakoa, baina oinaldetik, sorta osatzeko beste aleei lotzen zaien lekuan, okrea eta kurbatua. Mami zurixka, hori samarra. Usain berezirik ez eta zapore geza. Esporak marroi ilunak eta arrautza edo limoi formakoak dira eta poro germinala dute. Zistidioak ditu.



Suge ziza teila kolorea espezieak antz handia du eta susmagarria omen da, baina azken honek oso zapore mikatza du eta, nahiz eta bestea bezala koniferoen egurraren gainean atera, hostozabalen egurrean ere aurkitzen da. Gainera bere orriak kolore berde-hori eta purpura-beltza tartekoak dira, behin ere ez grisaxkak.

HABITATA: multzo soropildutan ateratzen da, koniferoen egurraren gainean, batez ere izaietan, udaberritik udazkenaren bukaerako lehen hormatera arte. Perretxiko hau aski arrunta da.

JANGARRITASUNA: Jangarri kaxkartzat hartzen da, baina hobe da ez jatea.

INOCYBE DULCAMARA

DESKRIBAPENA: neurri txikikoa da eta bere txapelak 5 cm-ko diametroa izan dezake; hasieran ganbila da, gero lautua eta azkenik erdialdea sartua du eta ertzak ondulatua eta askotan arraildua. Txapelaren azala feltro itxurakoa edo ilaunduna da, batzuetan ezkatatsua erdialdean, arrexka-horixka kolorekoa ale berrietan eta lehoi-gorrixka helduetan, baina ezkatak beti ilunagoak izan ohi ditu. Orriak erdi hertsiaik, itsatsiak eta sabeldunak dira, hasieran oliba-hori kolorekoak eta gero, zahartu ahala, arrexka-horixka bihurtzen dira eta ertzak margulak. Hanka, 4-5 x 0,5-0,6 zentimetrokoa, zilindrikoa da, askotan kurbatua, oinaldea zertxobait lodixea goa eta ale berrietan gortina igarokor bat ikus daiteke.

Mamia zurixka-horixka da, mehea eta elastikoa; eztiaren usaina du, perretxikoa bere horretan dagoenean ez da nabarmentzen, baina orriak igurtzean usain hori izugarria da. Zaporea hasieran gozoa baina segundo batzuk igaro ondoren min-



gots samarra.

HABITATA: espezie arraroa da Euskal Herrian, itsasertzeko duntan edota itsasbazterretik oso urruti ez dauden lekuetan izan ezik. Udazkenean, neguan eta udaberrian ateratzen da talde trinkoetan eta lur hareatsuetan; gehienetan koniferoen azpian leku irekietan.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

SUGE ZIZA TEILAKOLOREA (*Hypoloma sublaterium*)

DESKRIBAPENA: perretxiko honen txapela aipatutako beste bi Hypholomak baino mardulagoa da. Txapelak 3-10 zentimetroko diametro du, eta hasieran ganbila da, baina gero laua. Txapeleko azala leuna, zetakara eta lehorra, adreilu-gorri kolorekoa erdialdean eta horixka ertzean. Askotan ertzean gortinak utzitako mataza zurixka desagerkorak ikus daitezke. Orriak hertsiaik, estuak eta andatuak dira, hasieran horixkak, gero kedar kolorekoak eta azkenik beltzak, baina ertza altzoduna eta argiagoa dute. Mami aski lodia, zuri-horixka. Zaporea mingots samar eta ia gezaren tartekoa. Ez da usainik nabaritzen. Hanka mardul zilindrikoa, hasieran betea, horixka, eta oinal-



dean iluna eta kurbatua. Gortina zegoen lekuaren azpian zuntzez marraturik egoten da. Batzuetan gortinak eraztun iraunkorren itxura du, harro samarra baita. Espora eliptikoak, kolore gris-ilun eta morea tartekoak, eta poro germinala dute.

HABITATA: Suge-ziza mingotsa eta sugeziza gozoa bezala, hau ere multzo trinkotan atertzen da udan eta udazkenean, baina hostozabalen motzondo eta enborretan bakarrik, behin ere ez koniferoen egurretan.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, susmagarria baizik. Hala ere, V. Locquinek dioenez, tisana moduan pixka bat hartzean ona omen da hezueri eta erreumei aurka egiteko.

INOZIBE ZURIA (*Inocybe geophylla*)

DESKRIBAPENA: Inocybe gehienak bezala hau ere txikia da. Txapela konikoa du, 1,5 zentimetrokoa eta zuria da. Txapelaren azala zetakara, satinatua, eta giro hezean likatsua. Orriak hasieran kolore ahulekoak baina gero marroi-okreak, hertsiaik eta ia libreak. Hanka zuria, mehea, lodixea goa beheko aldetik. Gortina arina eta igarokorra. Mamia mehea eta zuria da, eta esperma usain handia du. Esporak arrautza formakoak dira, kolore okrekoak.

Var. Lilacina barietateak neurri berdina du eta inguru berdinetan ateratzen da baina bere kolorea lila da, ez zuria.

HABITATA: arrunta da Euskal Herrian, udan edo udazkenean, konifero eta hostozabalen basoetan.

JANGARRITASUNA: Inocybe gehienak bezala pozoitsua da baina Euskal Herrian ez da pozoiduririk ezagutu, agian txikia delako baita jangarri batekin nahastea.



INOZIBE HILTZAILEA (*Inocybe patouillardii*)

DESKRIBAPENA: merezi du perretxi-ko hau ezagutzeak, oso pozoitsua baita, hilgarria batzuetan, eta oso erraza da "Udaberriko Ziza" (*Calocybe gambosa*) famatuarekin nahastea, biak zurixkak eta udaberrikoak baitira. *Inocybe* guziek bezala, txapela konikoa du, eta honen diametroak 5-7 zentimetro ditu. Hasieran zurixka da, gero zuri-horixka, zuntzeska ahul erradioak arrosa-gorritz apaindurik, eta azkenean marroi-gorria. Hanka lodia da, zurixka, azpialdetik erraboilduna.



Orriak hasieran zurixkak dira, gero horixkak eta azkenean marroi gorrixkak.

HABITATA: Euskal Herrian gutxi izaten da. Udaberrian edo udan ateratzen da parke eta lorategietako belar artean, bereziki ezkien inguruetan.

JANGARRITASUNA: *Inocybe* gehienak pozoitsuak dira eta *Inocybe hiltzailea* hau omen da pozoitsuena, muskarina asko baitu. Europan hildako batzuk gertatu dira perretxiko hau jateagatik. Euskal Herrian, hala ere, ez dago horrelakoren berririk. Honen antza duen "Udaberriko ziza"ren mamia ez da zuntzekoa, txapelak ez du gorritz tindatutako ezer eta irin zapore eta usain handiak ditu.

Mami zuria eta zuntzekoa. Ebakitzerakoan pixka bat gorritu egiten da. Usaina eta zaporea ez dira ia nabaritzen.



HABITATA: uda-udazken aldean ernetzen da, bai konifero-basoetan, bai hostozabalenetan. Espezie arrunt samarra da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, *Inocybe* generoko beste perretxiko guztiak bezala. *Inocybe* generoak, 350 perretxiko edo dituenak, bi talde handi ditu, espora leunekoak eta modulatu edo angeludunekoak.

INOZIBE LOTSATIA (*Inocybe pudica*)

DESKRIBAPENA: txapela neurri txikikoa da, ia ez du inoiz 4-6 zentimetro baino gehiagoko diametroa; hasieran globo-formakoa edo kanpai-formakoa da, gero ganbila eta forma zabala du erdialdean eta ertza horztuna eta ondulatua. Kutikula leuna, zetatsua, zuri-zuria ale berrietan, baina pixkanaka gorritzeko joera du igurztean edo zahartzean. Orriak hertsia, ia itsatsiak, hasieran margulak, gero arrexka-gorrixkak. Hanka, 6-8 x 0,6-0,8 zentimetrokoa, zilindrikoa eta zertxobait erraboilduna da behealdean; azala leuna eta zetatsua du, baina pruinaduna goiko puntan eta bere txapelaren antzera gorritzeko joera du. Mamia mehea, zuria eta airea-



ren eraginez gorritzeko joera du. Zaporea gozoa eta usaina espermarena edo leka gordinena. Esporak leunak, arrexkak eta eliptikoak.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da koniferoen basoetan nahiz hostozabalen basoetan. Ez da oso espezie arrunta Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: lehen ere esan dugu, gainerako *Inocybe*en antzera susmagarritzat jo daitekeen perretxikoa dela; izan ere genero honetako gehienak toxikoak baitira. "*Lotsatia*" gorritu egiten delako deitzen zaio, pertsona herabeak lotsatzen direnean bezala. I. Godeyi antzekoa da baina hau hasieran beixa da eta ez zuria eta zahartzean I. *Pudica* baino askoz gehiago gorritzen da eta hankaren oinaldean duen erraboila azpaduna da eta ez erraboilduna.

LACCARIA AMETHYSTINA

DESKRIBAPENA: bere txapelak 6 zentimetrarainoko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lautu samarra eta azkenik erdialdea zapaldua eta ondulatua du, bereziki ertzaren ondoan. Bere azala hasieran leuna da, gerora balusatu eta azkenik matazatu, bere kolorea hasieran more-iluna da, batez ere denbora hezea denean, zahartu ahala marguldu egiten da eta tonu okreak ditu orduan. Orriak irregularrak dira, zabalean 3-7 milimetroko tartea dute eta orri ugari tartekaturik, guztiak more kolorekoak, askotan esporen hauts zuriz estaliak, itsatsiak edo erdi-dekurrenteak eta anastomosatuak oinean. Hanka, 8-10x0,5-1 zentimetrokoa, guztiz morea da, gogorra, zuntzekoa, zilindrikoa eta oinalde lodikoa, askotan kurbatua eta konprimitua, betea ale berrietan eta hori antzekoa helduetan. Esporak globo antzekoak dira, hialinoak, ez amiloideak eta oso arantzatsuak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da kolonia handietan edo baso ilun eta hezeetan, bai koniferoen artean bai



hostozabalen artean. Espezie arrunta da Euskal Herrian. **JANGARRITASUNA:** mamia mehea da txapelean eta zuntzekoa eta gogorra hankan, more-ilun kolorekoa, usainik gabea eta zapore gozokoa eta geza.

LAKARIA ARRUNTA (*Laccaria laccata*)

DESKRIBAPENA: bere txapela hasieran ganbila da, gero laua, eta haragi edo arrosa kolorea du. Orriak lodiak dira, txapelaren kolorekoak. Hanka erdi luzea da, zuntzekoa eta txapelaren kolorekoa. Mamia mehea da, hauskorra txapelean eta zuntzekoa hankan. Zapore gozoa du, baina usainik ez. Esporak zuriak eta ia esferikoak dira, arantza bakartziz estaliak. *Laccaria* guziak antzekoak dira. Zenbait mikologorentzat denak *Laccaria laccata*ren barieta-



teak dira. Hauek aipatuko ditugu: *Laccaria amethystina*, erabat morea; *Laccaria bicolor*, haragi koloreko txapela eta kolore moreko hanka eta orriak; *Laccaria proxima*, mardulena, lehoi-laranja kolorekoa eta hanka luze eta elastikoa; *Laccaria tortilis*, hanka motza eta kanaldun ertzekoa, adreilu kolorekoa erabat; azkenik *Laccaria lateritia*, *Laccaria laccata*ren antzekoa, baina bi esporatoko basidioduna eta abendu-urtarrilekoa, mimosa eta eukaliptoan azpian ateratzen da. Hauek denak jangarri kaxkarrak dira.

HABITATA: *Laccaria* arrunta Euskal Herriko perretxiko arrunten artean aurkitzen da. Uda-udazkenean ateratzen da, bai koniferoen eta bai hostozabalen basoetan. **JANGARRITASUNA:** jangarri kaxkarra da.

LACTARIUS ACERRIMUS

DESKRIBAPENA: txapela ertaina edo handia izan ohi du, 12-15 zentimetrarainokoa, hasieran ganbila, gero laua eta azkenik inbutu-formakoa, okerra eta ondulatua. Azala itsatsia, giro hezean nahiko likatsua, lehorrean, berriz, lausoduna; gamuza-kolorea izan ohi du, edo okre-horixka, edo krema-okrea, eta azkenik zimurduna. Orri anastomosatuak, krema-arrosa kolorekoak, iluntzeko joera dutenak. Hanka motza 2-4 x 1-2 zentimetrokoa, askotan eszentrikoa, kurbatua, oin estukoa, azal lehorrekoa, txapelaren kolorekoa eta behin edo behin hobiskaduna. Mami trinkoa, sendoa, zuria, ia-ia aldaezina, fruta-usainekoa, eta zaporea, berriz, mingar-mingarra. Neurri handiko esporak ditu, basidioak bi esporakoak baititu, eliptikoak eta gardenak; apaindura, ostera, ia saretua eta amiloidea.

HABITATA: uda-udazken aldean atera ohi da, lur lohitsueta batez ere, hostozabalen azpian edo bide-ertzetan. Espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zaporea mingar-mingarra duelako; Zonarii taldekoa da beste hauek bezalaxe: *L. Acerrimus*,



Evosmus, *Zonarius*, *Porninsis*, *Zonaroides* eta *Bresadolianus*. Lehenengo biak ongi finkatu gabeak, besteak, berriz, garbi-garbi. *L. Acerrimus*ek beste guztiekin duen aldea esporen neurri handiarena da, lehen esan dugunez basidioak bi esporakoak baititu.

ESNEKI LARANJA (*Lactarius auranticus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertainekoa da, txapelak 5-6 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran globo antzekoa, gero ganbila, geroago lautua eta azkenik sartu samarra erdialdean; ertza, berriz, hasieran kurbatu samarra eta azkenik kanalduna, ondulatua eta mehea. Azala lubrifikatua, giro euritsuan likatsua, distiratsua, laranja kolore ederrekoa eta pikorduna erdialdean. Orri hertsia, meheak, dekurrente samarrak edo itsatsiak, hasieran krema kolorekoak, gero okreak, eta herdoil-orban ugari igurtzi edo urraturen bat izan duten



lekuan. 4-6 x 1-1,5 zentimetroko hanka, hasieran betea, gero barrutik huts samarra, altzodun-ondulatua eta oin estutua; hanka-azala txapelarena bezalakoa eta oina ilunagoa, kolore laranja-gorria. Mamia nahiko mardula, hauskorra eta krema kolorekoa; zaporea, berriz, mingots samarra eta mingarra; usaina *Lactarius quietus*-ena. Esporak globo antzekoak eta gardenak; apaindura, berriz, ia saretua eta amiloidea.

HABITATA: udan eta udazkenean jaiotzen da, hostozabalez osatutako basoetan nagusiki, koniferopean ere behin edo azaltzen den arren. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingotsa duelako. Badira oso antzekoak diren laranja koloreko esnekiak.

LACTARIUS ACRIS

DESKRIBAPENA: Neurritz txikia edo ertaina izan ohi da, eta txapelak 6-8 zentimetroko diametroa izan dezake. Txapela hasieran ganbila izan ohi du, gero laua eta azkenik erdialdean sartua; ertza ondulatua eta biribilkatua ale berrietan, eta zuzena eta han-hemenka ildotua ertzean bertan. Azal likatsua eguraldi euritsuetan, lausoduna lehorrean, kolore marfil-zuria edo kafesnearena. Orri hertsia, ezberdinak, tarteko orri ugari, itsatsiak eta dekurrenteak; kolorea, berriz, krema-okre ahula, baina arrosa kolorea hartzen dute



erabiltzen dituzten, edo urratuak dituzten aldeetan. Hanka 5-8 x 1-2 zentimetrokoa, zilindrikoa, oin aldean estutua, betea, gero leizetsua, lehorra, lausoduna eta zimurduna; hasieran zurixka, baina ebakita 20 segundo baino lehen, esneak bustitzen duenean, lila-arrosa kolorekoa, gero pikana arrosa kolorea galtzen badu ere, eta okel-krema hartzen. Esne ugari, zuria, aireak aldatu egiten du eta minutu bat baino lehenago koral-arrosa kolorea hartzen du; zaporea oso mingarra eta mingotsa.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da, bai silizezko lurraldeetan bai karezkoetan, eta hostozabalen azpian. Espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore guztiz mingarra duelako. Fuliginosi sekzioa da; sekzio honetako espeziei aireak mamia eta esnea gorritu egiten dizkie.

PAGARDI ESNEKI BERDEA (*Lactarius blennius*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko perretxikoa da, txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran ganbila da, gero lautua eta azkenik inbutu itxurako erdialde sartua izan ohi du; ertza biribilkatua, ondulatua eta irregularra. Azala ia erabat itsatsia, euri-giroan oso likatsua edo lingirdatsua, ia ez dago gunekatua, bai, ordea, ertz inguruan konzentrikoki ipinirik agertzen diren tanta ilunagoz ziprztindua; tanten kolorea gris-more iluna da, oliba-isa eta guzti (berdexka virescensen antzera). Orri hertsia, meheak, itsatsiak; ertza



kolore berekoa dute, baina ukitu edo urratu txikienarekin kolore gris-berdexkaz zikintzen da, isuritako esnea lehortzean. Hanka 5-7 x 1-2,5 zentimetrokoa, hasieran betea, gero leizetsua, kolorea, berriz, txapelaren du edo agian zertxobait margulagoa, likatsua eta sarritan zenbait tanta ilunez ziprztindua. Mami sendoa txapelean, hauskorra, zurixka, baina urratzean edo ukitzean gris-berdexkaz zikintzen dena, ia usainik gabea eta zaporea mingarra. Esnea ugari-ugaria, hasieran zuria eta gero gris-olibatsua, minutu dezenteren ondoren, zaporea mingarra du.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da, pagadietan soilik. Espezie arrunta da Euskal Herrian
JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingarra duelako.

LACTARIUS PUBESCENS

DESKRIBAPENA: neurritz ertaina da, txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero nahiko lautua eta azkenik lautua, erdialdea sartua badu ere eta batzuetan zulatua, ertza biribilkatu-biribilkatua, ertzeko soberakina 0,2-0,3 zentimetro. Luzeko zuntz iletsuz osatua. Azala zurixka eta krema-arrosa zurbil tartekoa, gunekatu gabea, denboraren poderioz okre-gorri bihurtuz, hedadura guztian ia leuna, ertzetan izan ezik, horiletsua baita. Orri hertsia, nahasitako orri ugari, itsatsiak edo erdi dekurteak, kolorea, berriz, krema-arrosa mardula. Hanka motza 2-6x0,5-1,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, oinalderantz estutua, hasieran betea, gero leizetsua, azala



txapelaren kolorekoa, noizean behin hobixkatsua samarra, eta betularum sailean, goiko puntan, eraztun arrosa txiki bat. Esnea kolore zurikoa, ugaria ez, oso mingarra, kotoizko zapi batera tanta bat botaz gero berehala hartuko du kolore hori sendoa.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da karezko lurraldeetan, urkipean parke eta lorategietan. Espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: mami zurixka eta okre tartekoa, trinkoa, gogorra, zapore mingarra eta usain txarra ez behintzat. Ez da jangarria.



ESNEI ZURI ORRIARROSA (*Lactarius controversus*)

DESKRIBAPENA: galanta da, txapelak 20-25 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran hemisferikoa, gero ganbila, geroago laua edo, eta azkenik erdialdea sartua edo inbutu-formakoa, ertza biribilkatu-biribilkatua ale berrietan, eta ondulatua, leuna eta ilegabea ale helduetan. Azal erdi banagarria, leuna, distiratsua, likatsu samarra euri-giroan, kolore marfil-zurizta eta gure edo orban ardo-arrosak. Orri her-



tsiak, meheak, itsatsiak eta dekurteak, hasieran zurixkak, gero krema-arrosak edo arrosa biziak. 3-6 x 2-4 zentimetroko hanka motza, sendoa, batzuetan eszentrikoa, zilindrikoa, oinaldea estutua; hanka-azala zuria, arrosa samarra kutikularen azpian, usainik gabea eta hasieran zapore mingots samarra eta geroago mingarra. Sulfato ferrosoarekin bustiz gero kolore berdexka hartu ohi du. Esne ugari, zuria, horitzeko joera duena; zapore mingarra. Esporak globo antzekoak, zuriak; apaindura saretua eta amiloidea.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, belar tartean, zirkulu handiak osatuz, euria egin ondoren, "Populus" eta "Salix"-en azpian (zurzuriak eta sahasak). Espezie hau ez da arrunta Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: kalitate gutxiko jangarria da, zapore mingarra baitu.

ESNEKI GIBELKOLOREA (*Lactarius hepaticus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaina edo txikia izan ohi du, txapelak 5-7 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero lautua eta azkenik erdialdean sartua eta konkorduna, eta noizean behin kanaletu samarra. Azala itsatsia, leuna, higrofanoa, distiratsua, gibel-kolorekoa, arrexka-gorrixka; elkortzean zurbiltzeko joera du. Orri hertsia, tarteko orri ugari, itsatsiak, hasieran okreak, gero ilundu egiten badira ere eta kanela-gorrixka kolorea hartzen. 4-6 x 0,5-1 zentimetroko hanka du, luzea, zilindrikoa, betea ale berrietan, hutsa helduetan, kolorea txapelarena baino zertxobait ilunagoa.

Mami mehea, hauskorra, krema-kolorekoa, aireak horitzen duena, usainik gabea eta zapore mingarra. Kolore eliptikoak ditu, gardenak; apaindura, berriz, saretua eta amiloidea.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da konifero-



ak dauden basoetan, oso arrunta "Pinus radiata" izenekoen azpian. Oso espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria zapore mingarra duelako. Mendiko koniferoetan bada antzeko esnekia, L. Badiosanguineus delakoa, eta honen berezitasunik nagusienak hauek dira: txapela gorriagoa du eta kotoizko zapia ez du bat-batean horitzen minutu bat behar baitu horretarako.

NIZKALOA (*Lactarius deliciosus*)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbila da, baina gero hedatua, erditik sartua eta ertzean biribilkatua. 6-12 zentimetroko diametroa du. Txapeleko azala balusatua eta giro hezean likatsua. Laranja kolorekoa da eta zirkulu zentrukideak ikus daitezke. Zahartzerakoan berriz, kolore berdea hartzen du, partzialki edo erabat. Orriak hertsia, makotuak, dekurrente antzak eta laranja kolorekoak dira eta zahartzerakoan erasotako lekuetan orban berdeak ateratzen zaizkio. Hanka motza da, txapelaren kolorea, eta azalean zenbait hobi gorkara ikus daiteke. Ebakitzekoan mami zurixka ikus daiteke, baina laranja kolore



aldatzen da berehala, eta zenbait ordu beranduago berdera. Usain atsegina eta zapore geza. Esne laranja du, mingar antza eta airean aldagaitza.

Lactarius sanguifluus antzekoa da, baina jateko hobe, eta bereizteko ebaki egin behar da, azken honen mami berehala ardan-gorrira aldatzen baita. *Lactarius semisanguifluus* espezie desberdinaren mami hasieran laranja kolorean aldatzen da eta 5-10 minutu beranduago ardo kolorean. Azkenik *Lactarius salmonicolor* espeziea dauka.

HABITATA: esnegorria udazkenean eta neguaren hasieran ateratzen baita kare-lurretako pinuen azpian

JANGARRITASUNA: jangarri ona denez, asko jaten da, eta merkatuetan saldu ere bai.

ESNEKI ARGI (*Lactarius pallidus*)

DESKRIBAPENA: espezie hau ertaina da edo handia, eta txapelaren diametroa 10-12 zentimetrokoak izan daiteke, hasieran ganbila da, gero laua eta azkenik erdialdean sartu samarra; ertza leuna du eta biribilkatu samarra. Azala ia erabat itsatsia, eguraldi euritsuari likatsua, lehorrean matea eta gunekatu gabea; kolorea, krema-arrosa zurbila eta gero ia-ia beixa. Orri hertsia ezberdinak, tartekaturiko orri ugari, horietariko asko eta asko oin inguruan urkilatuak, itsatsiak eta dekurrenteak, hasieran kremazuriak, eta gero, zahartu ahala, krema-okreatsuak. Hanka 8-10 x 2-3 zentimetrokoa, zilindrikoa, hasieran betea, gero barrutik hutsa, hauskorra; hanka-azala txapelaren kolorekoa, azkenean eta luzaran kizkurtua, likatsu samarra baina puntan lehorra eta lausoduna. Txapelean mami sendoa, biguna eta zurixka, okrea gero, hankan batez ere, ia usain gabea eta zapore mingarra. Esne gutxikoa, zuria, aldagaitza



eta hasieran zapore eta gozokoa eta mingar samarra gero. Arrautza-formako esporak, gardenak, apaindura, berriz, erdi saretua eta amiloidea.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da, kare-lurretan eta pago-basoetan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingarria duelako. Perretxiko arrunta da, ezagutzen erraza, izan ere, habitata pagopean du, nahiko sendoa da, txapel argi eta uniforme.

ESNEKI ZURI ORRIBILDUA (*Lactarius piperatus*)

DESKRIBAPENA: espezie handia da, bere txapelak 5 zentimetroko diametroa baitu. Hasieran ganbila da eta gero zilborduna, askotan eszentrikoa, eta ertz leun eta biribilkatua du. Txapeleko azala matea eta zimurtua da, zerrendarik gabekoa, kolore zuri-kremakoa, eta gainetik sakabanaturik herdoil koloreko orbanak ditu. Bestalde, ezin daiteke txapeletik aska. Orriak hertsia, estuak, urkilatuak, andatuak eta dekurrente samarrak dira, krema eta haragiaren tarteko kolorekoak. Hanka lerdana, leuna eta lehorra da, kolore zuri-krema



koa, baina oinaldean okrea.

Mami gogor eta hauskorra du, kolore zuri-kremakoa. Zapore mingarra eta usain txarra. Potasaren bidez ez du erreakziorik egiten. "Latex" edo esnea zuria, mingarra eta ez ugaria da, eta orrien gainean horitu egiten da.

Esporak ia esferikoak eta zuriak dira eta beren apaindura amiloidea eta erdi-saretua.

HABITATA: Udaberrietik aurrera udazkenaren bukaera arte ateratzen da, kare-lurretako hostozabalen basoetan.

JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra da.

LACTARIUS PUBESCENS

DESKRIBAPENA: neurritz ertaina da, txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero nahiko lautua eta azkenik lautua, erdialdea sartua badu ere eta batzuetan zulatua, ertza biribilkatu-biribilkatua, ertzeko soberakina 0,2-0,3 zentimetro. Luzeko zuntz iletsuz osatua. Azala zurixka eta krema-arrosa zurbil tartekoa, gunekatu gabea, denboraren poderioz okre-gorri bihurtuz, hedadura guztian ia leuna, ertzetan izan ezik, hori iletsua baita. Orri hertsia, nahasitako orri ugari, itsatsiak edo erdi dekurrenteak, kolorea, berriz, krema-arrosa mardula. Hanka motza 2-6x0,5-1,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, oinalderantz estutua, hasieran betea, gero leizetsua, azala txapelaren kolorekoa, noizean behin hobixkatsu samarra, eta betularum saillean, goiko puntan, eraztun arrosa txiki bat. Esnea kolore zurikoa, ugaria ez, oso mingarra, kotoizko zapi batera tanta bat botaz gero berehala hartuko du kolore



hori sendoa.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da kare-lurretan, urki-eremutan eta lorategietan. Espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: mami zurixka eta okre tartekoa, trinkoa, gogorra, zapore mingarra eta usain txarra ez behintzat. Ez da jangarria.

ESNEKI ARRUNTA (*Lactarius quietus*)

DESCRIBAPENA: tamaina ertaineko perretxikoa da, txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero nolabait lautua eta azkenik erdialdean sartu samarra. Azala erdi banagarria da, matea eta lehorra, kolore arre-gorria, orban ilunagoz bete. Orri hertsia, mehea, itsatsiak eta dekurrenteak, tartekatutako orri ugari, hasieran krema-kolorekoak, gero, denbora pasa ahala, arre-gorriak. 5-7 x 0,5-2 zentimetroko hanka, zilindrikoa; hanka-azala, berriz, lehorra eta matea du, txapela baino ilunagoa, batez ere oina, purpura-erre kolorea duena. Mami mehea, hauskorra,



hasieran kolorea krema-laranjatsua, aireak iluntzen duena; zapore gozoa du baina astringente samarra, usain berezikoa, frantsesek "panaise des bois" izendatzen dutena (basoko arkakusoak) eta guk zimitza (garai batean gure etxeetan bizi parasittoa, eta gaur egun, zorionez, galdua). Esne ugari, kolore zurikoa lehendabizi, gero krema-kolorekoa eta zapore gozokoa. Arrautza-formako esporak, gardinak; apaindura, berriz, erdi saretua eta amiloidea. **HABITATA:** uda-udazken aldean ateratzen da, "Quercus"-ez betetako baso hezeetan. **JANGARRITASUNA:** ez da jangarria, zapore txarra duelako.

LACTARIUS RUBROCINTUS

DESCRIBAPENA: perretxiko hau txikia edo ertaina izan ohi da, eta txapela 6-8 zentimetroko diametroa izatera hel daiteke, hasieran ganbila, gero laua eta azkenik erdialdean sartua; ertza biribilkatu samarra eta ondulatu-ondulatu. Azala itsatsia, erdi aldean zimurtua edo tolestua, leunagoa ertzetan, eguraldi euritsuan likatsu antzekoa, eta lehorrean matea, lehoi-laranja kolorea u eta arre gorritza, zenbaitetan orban txiki ilunago eta guzti; giro lehorrean kolorea galtzeko joera du. Orri hertsia, ezberdinak, tarteko orri ugari, mehea, itsatsiak eta dekurrenteak, ale berriek kolore krema-laranjatsua dute, helduak gorrixekoak dira, azken horiek ukiturik txikienarekin arre-more bihurtzen badira ere. Hanka 5-7 x 0,5-1 zentimetrokoa, zilindrikoa, barrutik hutsa, ale zaharrek azala zimurdu-na dute luzaran, kolorea, berriz, txapelarena, goiko puntan izan ezik, han, orri-ondoan, xingola gorritza garbia baitute. Mami trinkoa, krema kolorekoa eta gero arre-gorrixka. **HABITATA:** uda-udazken aldean ateratzen da hostozabalen baso hezeetan, eta batez ere pago azpian.



JANGARRITASUNA: espezie hau ez da jangarria, zapore mingotsa duelako. Erraza da bereizten, izan ere, txapelaren azala erradialki zentrorantz kizkurtua du, kolore berezia, orri hertsia eta arre-gorritzak, zaporea, mingarra ez, mingotsa baizik, eta orri ondoan xingola gorritza du; pagopean bizi da.

LACTARIUS RUFUS

DESCRIBAPENA: perretxiko ertaina da, txapelak 6-10 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran globo itxurakoa, gero ganbila, azkenik inbutu-formakoa, ertza mehea, dezake, hasieran biribilkatua eta gero lautua. Azal itsatsia, lehorra baina distiratsua, kolore herdoil-arrea edo adreiluarena, leuna eta lupaz begiratuta azal zaintsua. Orri hertsia, itsatsiak eta dekurrenteak, tarteko orri ugari, kolore okre-horrika edo gorritza ahula, maiz burdin koloreko ttantzez zikinduak. Hanka 6-10 x 0,8-2 zentimetrokoa, zilindri-



koa, batzuetan kurbatua, hasieran bete, gero leizetsua; azala luzaran kizkurtua, kolorea txapelak baino argixeagoa, baina oina ilupaduna eta zuria. Mami arre-gorrixka ahula, mehea, hauskorra, usain txarrekoa, Scleroderma citinumek duen antzekoa eta zaporea mingarra.

HABITATA: hala ere oso ugaria Frantziako Landetan, uda-udazkenean ateratzen da silizezko lurraldeetan, koniferoak dauden basoetan, oso gutxitan hostozabalen azpian. Ez da espezie arruntzia Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingarra duelako. Dena den, badirudi Europako Ekialdeko herrietan jan egin ohi dutela, jan aurretik gau guztian uretan eduki ondoren, eta sukaldean maneatu aurretik, uretan 10 minutuz egosiz gero.

LACTARIUS SALMONICOLOR

DESCRIBAPENA: ertaina edo handia izan daiteke, txapelak 12-15 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da ertza biribilkatu-biribilkatua du gero nahiko laua eta azkenik erdialdean sartu egiten zaio, eta batzuetan zulatu, hankaren alde hutsarekin komunikatuz. Azala hezea, distiratsua, kolorea izokin-laranjatsua, ia gunekatu gabea, batzuetan gune laranja-arrez zipriztindua, eta berdetzeko joerarik gabea. Orri hertsia, mehea, makurak, itsatsiak eta dekurrenteak, laranja-izokin kolorekoak, urratuetan orban arre-moreak, gutxitan berdetzen da zatika. 5-7 x 1,5-3 zentimetroko hanka, sendoa, zilindrikoa, txapelaren kolorekoa, barrutik hutsa, normalean laranja koloreko hobia eta guzti, edo bat ere gabea. Mami margula, gainaldean laranjatsua bai txapelean eta bai hankan, ebakiz gero eta hainbat minututara arre-gorrixka,



esnez bustitzen denean. Xaboi-usaina du eta zapore astringentea.

HABITATA: berandu atera ohi den perretxikoa da, udazkenean, gehienetan, silizezko lurraldeetan, "Abies" eta "Picea" zuhaitz-motzez estalitako mendiko basoetan. Espezie hau bakana da Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, ez, ordea, Nafarroako eta Iparraldeko Pirinioetan.

JANGARRITASUNA: jangarria da.

ESNEARDOTSUA (*Lactarius sanguifluus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko espeziea da, txapelak 10-12 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran ganbila, gero lautua eta azkenik erdialde sartua. Azala balusatu samarra du, ardo-gorri kolorekoa, ez beti gunekatua; denbora pasa ahala kolore berde-urdina izan dezake. Orri hertsia, itsatsiak eta dekurrenteak, hasieran argiak, gero gorri-moreak eta azkenik partzialki edo erabat berdexkak. 4-6 x 0,8-1,2 zentimetroko hanka, motz antzekoa, hasieran betea, gero barrutik hutsa, zilindrikoa, azal leuna, kolorea laranja-gorria, hankak hobi ilu-



nagoak izan ohi ditu kolore ardo-gorrikoak. Hasieran mami zuria erakusten du ebakitzean, gero ardo-gorri kolorekoa urratuetatik irteerako esneaz bustitzen denean, gozoa da eta ia usainik gabea. Esne gutxikoa, ardo-gorri kolorekoa, iluntzeko joera duena, hasieran zapore gozokoa, gero, berriz, mingots samarra. Espora eliptikoak, zuriak; apaindura saretua eta amiloidea.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da kare-lurretan, batez ere pinudietan. Perretxiko bakana gure Herrian, arrunta Mediterraneoko klima duten herrietan, hori dela eta, euskal perretxiko zaleok, Nafarroako eta Arabako hegoaldean biltzen ditugu soilik.

JANGARRITASUNA: jangarri ona da.

LACTARIUS TABIDUS

DESKRIBAPENA: txikia edo ertaina izan ohi da eta txapelak 5-8 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero erdialde sartua. Ertza giro hezean ildaskatu samarra. Azal itsatsia, matea, lehorra, kolore okrea edo horixka; azala, berriz, erradialki bizkurtua, batez ere erdialdean, denbora lehorrean zurbiltzeko joera. Orriak nahiko hertsia, ezberdinak, itsatsiak eta dekurrenteak, hasieran krema-kolorekoak eta gero krema-horiztak, burdin-orban eta guzti. Hanka 3-5 x 0,5-0,8 zentimetrokoa, zilindrikoa, hasieran betea, gero barrutik hutsa; hanka-azala, kizkurtua eta matea, kolorea, berriz, txapelarena. Mami mehea, hauskorra, okre-kolorekoa, ia usaingabea, zaporea hasieran gozoa du, gero mingar samarra, eta azkazal gainean edo kotoizko zapi zuri baten gaine-



an tanta bat isuriz gero horitu egiten da.

HABITATA: uda-udazken aldean ateratzen da hostozabalak ageri diren baso hezeetan, batez ere pagadietan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingarra duelako. *L. Theiogalus* oso antzekoa du, baina hau lerdengoa da, txapela txikiagoa du eta kolore ahulagokoa, eta ertzak ildaskatu-ildaskatuak, esporak, berriz, garatxodunak, ez, ordea, saretuak.

ESNEGORRI FALTSUA (*Lactarius torminosus*)

DESKRIBAPENA: neurri ertainekoa da, bere txapelak 12 zentimetroko diametroa baitu. Hasieran ganbila da, baina gero inbutu formakoa, eta ertz biribilkatu eta ilaundun edo artileduna du. Txapeleko azala izokin-arrosa eta laranja-kremaren arteko kolorekoa da eta zerrenda zentrukideak ditu. Erdialdea leuna eta likatsua du, baina beste guziaz artiletsua, batez ere ertza aldean. Orriak hertsia, urkilatuak, dekurrenteak eta krema-arrosa kolorekoak. Hanka zuri-krema kolorekoa eta sakabanatutako hodiak ditu. Esnea ez-ugaria, oso



mingarra eta zuria da, eta begiratu batean aireak ez du kolorez aldatzen, baina zapi zuriaren ehuna horitu egiten du. Esporak eliptikoak eta krema kolorekoak dira, eta apaindura amiloide erdi-saretua dute.

*Lactarius deliciosus*ekin nahas liteke, baina hain du zapore mingarra, non ia ezina baita pozoidura. Hau dela eta, orain arte behintzat, ez dugu pozoiduren berri izan. *Lactarius blumi* handia du, hau ere urkien azpian ateratzen da aurrekoa bezalaxe, baina azken ia ez du zerrendarik eta bere kolorea zuri-arrosa da.

HABITATA: esnegorri faltsua urkien azpian ateratako espezie tipiko bat da.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, eta batzuek pozoitsutat hartzen dutez. Mami zurixka du. Zapore mingarra eta fruta usaina.

ESNEKI ZURI-ORRIZABALA (*Lactarius verellus*)

DESKRIBAPENA: esneki zuri-orrizabala *Lactarius* zurietakoa da. Oso arrunta eta handia, 25 zentimetroko diametroa baitu. Bere txapel lodia ganbila da hasieran, gero laua, erditik zapaldua, inbutu formakoa. Ertz leuna du, uhindu eta biribilkatua. Txapeleko azala lehorra da, andatua, ilaunduna eta balusatua, hasieran zuria baina gero kolore okresa-kremara aldatzen da. Orriak nahiko bakanak, adnatu-dekurrenteak eta zuriak dira, baina gero kolore zuri-kremakoa hartzen dute eta zaharterakoan iluntzeko joera dute. Hanka motz, trinko, lodi eta kolore zurikoa, baina kolore okre antza har dezake. "Latex" ugari, kolore zurikoa, potasa erreazioz alde ezina. Esporak ia esferikoak dira, zuriak, eta apaindura amiloide ia saretua dute. Zistidioak ere baditu. Txapeleko azala harizpizkoa da. *Lactarius bertillonii* antz handikoa da, baina txikiagoa. Zapore mingarra du eta bere esnea potasaz horitu egiten da. Bestalde, *Lactarius piperatus* espeziearekiko desberdintasun nagusia orrietan datza, askoz hertsia goak baiti-



ra. Halaber, *Lactarius controversus* orriak arrosa kolorekoak dira. *Lactarius* eta *Russula* generoek *Russulaceae* familia osatzen dute.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da hostozabalen azpian. **JANGARRITASUNA:** jangarri kaxkarra da, jateko baliorik gabekoa.

LACTARIUS VIETUS

DESKRIBAPENA: txikia izan ohi da, edo txapelak 6-8 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lau-ganbila eta azkenik ondulatua. Azala nahiko itsatsia, likatsua giro euritsuan, distiratsua eta gris-morea, okel-gisa, gris-arrexka edo ardo-arrexka izan daiteke euskal Russularen antzera, zahartu ahala edo giro lehorrean marguldu egiten da. Orri hertsia, tartekaturiko orri ugari, meheak, makurrak, itsatsiak eta dekurrenteak, hasieran zurbilak, gero krema-laranja kolorekoak, urratuetan kolore gris-berdexka edo gris-arrexka hartzen dutenak. 5-7 x 0,8-2 zentimetroko hanka, zilindrikoa, maiz kurbatu samarra, likatsua ez, hasieran betea, gero hutsa, kolore lila-zurixka-grisaxka. Mami hauskorra, zurixka, azal



azpian grisaxka, usainik gabea eta, azkenik, zapore mingarrekoa, % 10eko sulfato ferrosozko disoluzioaz bustiz gero kolore berdexka hartu ohi du. Esnea ugaria, zuria, orrien gainean lehortu ahala gris-berdexka bilakatzen dena. Esporak globo antzekoak, gardenak; apaindura, berriz, erdi saretua eta amiloidea.

HABITATA: ez da espezie arrunta Euskal Herrian. Udan eta udazkenean ateratzen da urkidi inguruko leku hezeetan, edo pinuak ageri diren basoetan.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria, zapore mingarra duelako. Lactarius glyciosmusen antzekoa da, txapelaren kolorearengatik eta habitat berean ateratzen delako, baina baditu aldeak ere, azken honek txapela txikiagoa baitu, esnea urriagoa eta batez ere, behatzekin igurtzi ondoren duen kokozko galleten edo pikondoaren hostoen usain gozoarengatik.

ESNATOA (*Lactarius volemus*)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbila da, baina gero laua, uhindua eta erditik zapaldua, eta 6-12 zentimetroko diametroa du. Ertza leuna eta biribilkatua da. Txapeleko azala arbeletzeko edo marroi-laranja kolorekoa da, leuna, balusatua eta ez-zonatua. Orriak aski hertsia, meheak eta dekurrenteak dira, kolore okre-kremakoak. Hanka mardul, gogor eta betea du, txapela baino zurbilduxeagoa, eta zaurietan orban arrear ditu. Mami lodia, trinkoa eta zuri-okrea da, baina ebakitzeko pixkana-pixkana ilundu egiten da. Zapore geza eta geranio edo arrain usaina. Sulfato ferrosoren bidez berdetu egiten da. Ebakitzeko esne ugari dario, zuri geza, eta begiratu batean, poliki-poliki marroira aldatzen da.



Esporak ia esferikoak dira, zuriak, eta apaindura amiloide saretua dute.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da, gehienetan hostozabalen azpian, baina noizbehinka koniferoen azpian ere bai. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra. Euskal Herrian ez da jaten.

ESNEKI ZONADUNA (*Lactarius zonarius*)

DESKRIBAPENA: neurri ertainekoa da, bere txapelak 6-12 zentimetroko diametroa baitu. Hasieran ganbila da, gero laua eta erditik sartua. Ertza uhindu eta biribilkatua. Txapeleko azala okre-horia da eta zona zentrukide ilunagoak ditu. Giro hezean likatsua izaten da. Orriak aski hertsia, urkilatuak, makotuak eta dekurrenteak dira, krema kolorekoak. Hanka motza, mardula, leizetsua, zurixka eta leuna da, eta var.scrobipes-ean hobiak ditu. Mami lodia du, trinkoa, ebakitzeko zurixka,



baina gero arrosa zurbil bihurtzen da eta beranduxeago grisaxka. Geranio usaina eta zapore mingar antza. Ebakitzeko esne ugari dario, zuri eta aldagaizta, oso zapore mingarrekoa.

Esporak ia esferikoak dira eta apaindura amiloide erdi saretua dute.

Lactarius acerrimus, antzekoa da, baina txapel zurbilagoa du, ia ez da zonatua, eta fruta usain nabarmena du.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da kare-lur hezeetan, hostozabalen azpian.

JANGARRITASUNA: bere zaporea oso mingarra denez, ezin da jan.

ASTAPUTZ ERRALDOIA (*Langermannia gigantea*)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputzaren forma biribildua da, duen altuera baino zabalagoa, mizeliozko lokarri baten bidez lurrari lotua. Diametroa 50 zentimetro baino ailega daiteke. Euskal Herrian 7 kilokoak bildu izan dira, baino Europako zenbait lekutan 20 kilokoak ere aurkitu dituzte. Exoperidioa edo kanpoko geruza hasieran leuna, hauskorra eta zuria da, gero horitzen joaten da eta azkenean desagertu egiten da. Orduan beste geruza edo endoperidioa agertzen da, zurixka eta baita hauskorra ere. Zahartzean horitu egiten da eta irregularki urratu espora helduak libre uzteko, beste Licoperdaceaeetan ez bezala, espezie honetan ez baita esporak ateratzeko zulorik agertzen. Gleba hasieran mami-tua, trinkoa eta zuria du, gero horia, eta azkenean marroia, haustu egiten da. Azpiglebaedo oinalde antzua du, baina oso murriztua edo ia gabea. Esporak



arreak, ia esferikoak eta leunki garatxodunak dira eta pedizelo edo luzapen txikia dute.

Calvatia uniformisekin nahas daiteke.

HABITATA: perretxiko hau oso handia da eta Euskal Herrian arraroa. Belarretan ateratzen da eskuarki udan eta udazkenean, parke, lorategi, larre eta mendiko belardietan.

JANGARRITASUNA: ale gazteak jangarritzat hartzen dira. Jateko gehienetan xerrak egiten dituzte, meheak, eta irinez eta arrautzaz pasatu ondoren paderan frijitzen dira.

ONDDO LARANJA (*Leccinum aurantiacum*)

DESKRIBAPENA: onddo honen txapela hasieran hemisferikoa da, baina gero ganbil hemisferikoa, diametroak 5-20 zentimetro du, eta batzuetan 28 zentimetro ere bai. Txapeleko azalak ertza du eta kolore gorrixka-laranja edo adreilu-laranja da. Hanka zilindrikoa da, eta sabeldu samarra. Zuria edo okre argiz edo hori zikinez nahasia izan liteke. Bikorkadurak ditu, eta zahartzerakoan okertzeko joera du. Bikorkadura horiek hasieran kolore berdinekoak dira baina gero marroiak, batzuetan besteetan baino ilunagoak, eta luzerak eta paraleloki jarriak, erliebezko saihtesen



modura. Oinaldea urdin biziz nahasirik dago baina gorago eta oliba-berde kolore handiagoa hartzen du. Hodiak oso luzeak dira, libreak edo hanka inguratzen dutenak. Hasieran zuriak dira eta gero krema edo hori zikinez nahasten dira. Poroak hodiaren kolorekoak.

Leccinum generoa ez dago oso estudiatuta eta oso genero nahasgarria da.

HABITATA: udaberritik udazkenaren bukaera arte aurki daiteke urkiak eta zurzuriak dauden lekuetan, nahiz eta zaila ez izan harizti eta pagadietan ere aurkitzea.

JANGARRITASUNA: bere mami zuria txapelean morearrosara aldatzen da eta hankan berde-urdinera. Tonu hau sakonagoa da oinaldean. Zapore eta usain ahulak, baina atseginak. *Leccinum* generoko jangarri hoberenetakoa da hau, baina lurrin handiagoa duten espezieekin a hobeto gelditzen da.

LECCINUM CROCIPODIUS

DESKRIBAPENA: txapelak 4-14 zentimetroko diametroa du, hasieran hemisferikoa da eta azkenean ganbil-zabaldua, ertza lodia eta gainezkatua du, hasieran kurbatua eta gero laua. Txapelaren azala erantsita dago, zahartzerakoan pitzatzeko joera du eta plaka handiak sortzen dira kolore zuriko mamia agerian utziz, kolorea oso aldakorra du hori-argiaren, oliba-horiaren, hori-marroixkaren eta marroi-ilunaren artekoa, alea heldua denean tonu beltzaxkak izan ohi ditu. Hodiak luzeak eta libreak dira, ale berrietan horiak, ale helduetan ilundu egin ohi dira eta igurztean belztu. Poroak angeludunak dira, txikiak eta hodiaren kolore berekoak, ale helduetan oliba tonuak izan ohi dituzte, ukitzean krema-okre bihurtuz. Hanka 5-14x2-4 zentimetrokoa da, hasieran arrautza-formakoa eta berehala luzatu egiten da zilindriko bihurtzeraino eta zertxobait sabelduna; hondoa kolore horikoa da eta zahartzerakoan tonu okrekkak izan ohi ditu; pikor sendo eta horixkek estaltzen dute, ukitzean eta zahartzean marroi bihurtzen direnak, pikor hauek



punta aldera biltzen dira eta saihtes forma hartzen dute, paraleloki jarrita luzaran.

HABITATA: espezie hau uda-udazkenean ateratzen da, banaka edo talde txikietan eta hostozabalen basoetan, batez ere artadietan.

JANGARRITASUNA: mamia harroa da, zuri-horixka margula eta moztean hasieran gorrixkara jotzen du, gero lila eta azkenik beltza.

XARMA-ONDDOIA (*Leccinum carpini*)

DESKRIBAPENA: bere txapelak 4-14 zentimetroko diametroa du, hasieran ia globo-formakoa da, gero hemisferiko kanpai formakoa eta azkenik ganbil-zabaldua, ertza kamutsa du, ondulatua eta gingilduna, hasieran barrura okertua eta gero zabaldu egiten da. Txapeleko azala leuna da eta zertxobait ilaunduna, gero, ilauna galtzean leun geratzen da eta denbora hezea denean zertxobait likatsua, zahartzean pitzatu egiten da; kolore grisaxka du, oliba-grisaren, gris-okrearen eta beix-horixkaren artekoa. Hodiak luzeak dira eta hanka inguruan apur bat zapalduak, zuri-horixka dira ale berrietan eta zahartzean lasto-hori-zikin kolorea hartzen dute. Poroak biribilkatuak dira, txikiak eta



hodiaren kolore berekoak. Hanka 5-15x1-3 zentimetrokoa da, zilindrikoa eta zertxobait kurbatua, oinalderantz lodia-goa eta punta aldera zertxobait estuagoa; zuri-grisaxka edo zuri-horixka da, luzaran paraleloki eta zig-zag eran jarritako pikorrek estaltzen dute. Esporak fusiformeak dira eta horixkak, euren barnean ttantak dituzte.

HABITATA: espezie hau uda-udazkenean ateratzen da, bakarka edo talde txikietan hostozabalen basoetan, batez ere urrak dauden lekuetan, baina "*Quercus*" eta "*Populus*"en azpian ere atera ohi da eta inoiz baita "*Fagus*"en azpian ere.

JANGARRITASUNA: mami gutxi du eta harroa da, zurixka-horixka-argia eta moztean hankako mamia gorri-zikin bihurtzen da, gero morexka-grisaxka eta azkenik belztu egin ohi da; usain nabarmenik ez du eta zapore suabea.

LECCINUM QUERCINUM

DESKRIBAPENA: bere txapelak 6-16 zentimetroko diametroa du, hasieran hemisferikoa da eta gero ganbil-zabaldua, ertza zorrotza eta gainezkatua du, ondulatua eta gingilduna, hasieran kanpora okertua eta gero laua. Txapelaren azala iluna da eta zertxobait ilaunduna, adreilu-gorriaren eta buztin-gorriaren artekoa. Hodiak luzeak dira eta hankari itsatsiak hari finaren antzeko zerrenda txiki baten bidez, ale berrietan okre-horixkak dira eta zahartzean herdoil-beix kolorea izan ohi dute. Poroak biribilkatuak dira, txikiak eta hodiaren kolore berekoak. Hanka 8-20x2-4 zentimetrokoa da, zilindrikoa, oinalde erraboldunera kurbatua eta zertxobait estuagoa estalita dago, hanka lehoi-okre edo lehoi-ur kolorekoa da, punta aldera zuzendutako ezkatze estalita dago, nabarmenagoak direnak oinaldean (hori berde-urdin bihurtzen da zapaltzean), ezkatak gorrixkak dira, hondoa baino kolore ilunagoa izan ohi dute. Esporak fusiformeak eta horixkak dira, euren barnean ttantak dituzte.

HABITATA: espezie hau uda-udazkenean ateratzen da, talde txikietan eta hostozabalen basoetan, batez ere harizti, pagadi eta gaztainadietan.



JANGARRITASUNA: mamia lodia eta harroa da, zurixka, moztean lehenengo gorri-lila bihurtzen da, gero more eta azkenean arbel-morea. Usain nabarigaitza du eta zapore suabea.

ARTADI ONDDO BELZKORA (*Leccinum lepidum*)

DESKRIBAPENA: txapelak 4-15 zentimetroko diametroa du, hasieran hemisferikoa da eta azkenean ganbil-zabaldua, ertza lodia eta gainezkatua du, ondultua, gingilduna, hasieran kurbatua eta gero laua. Txapelaren azala zertxobait ilaunduna da eta oso kolore aldakorra du, lehoi kolorearen, marroiaren eta marroi-ilunaren artekoa, tonu gamuzak ere izan ditza-ke. Hodiak luzeak eta itsatsiak dira, ale berrietan horixkak eta zahartzerakoan beix bihurtzen dira, oliba-berdearekin nahastuz. Poroak angeludunak dira, txikiak eta hodiak kolore berekoak, baina ale helduetan oliba ñabardurak izan ohi dituzte. Hanka 5-15x2-4 zentime-



trokoa da, hasieran arrautza-formakoa da eta berehala luzatu egiten da zilindriko bihurtzeraino eta zertxobait kurbatua, oinaldea errabolduna mantentzen du eta oso sustraitzailea; hondoa horixka kolorekoa da eta denborarekin tonu okreak izan ohi ditu, punta alde, berriz, horia;

HABITATA: espezie hau uda-udazkenean ateratzen da, banaka edo talde txikietan eta hostozabalen basoetan, batez ere artadietan nahiz eta zenbaitetan "Pinus pinaster" -a dagoen baso mistoetan ere atera ohi den.

JANGARRITASUNA: mamia lodia da, zuri-horixka margula eta moztean guneka gorri-margulera pasatzen da, gero laranja eta azkenik more-beltzaxkara, gris-okrexka margul bihurtuz; usain nabarigaitza du eta zaporea geza antza.

URKI-ONDDO (*Leccinum scabrum*)

DESKRIBAPENA: txapelak 5-15 zentimetroko diametroa du, hasieran hemisferikoa da, gero ganbila eta azkenean ganbil-zabaldua, ertza gainezkatua du, lodia, ondultua eta gingilduna, hasieran kanpora okertua eta gero laua. Txapelaren azala ez da oso banagarria, leuna eta zertxobait ilaunduna da, gero ilauna galtzean leun geratzen da eta denbora hezea denean likatsua; gris-marroixkaren, gris-okrexkaren eta nabar-gorrixka hori samarraren artekoa da. Hodiak luzeak eta itsatsiak dira, hankaren inguruan apur bat zapalduak, ale berrietan zurixkak dira, gero grisaxka bihurtzen dira eta zahartzean arrosaz lausotzen dira. Poroak biribilkatuak dira, txikiak eta hodiak kolore berekoak. Hanka 10-17x1-3,5 zentimetrokoa da, zilindrikoa edo ia klabiformea, zertxobait lodiagoa oinaldean; zuri-grisaxka edo zuri-horixka-argia izan daiteke, pikor hertsiek estaltzen dute, ilunak edo ia beltzaxkak. Esporak fusiformeak dira eta horixkak, euren barnean ttantak dituzte.

HABITATA: espezie hau udaberri amaieratik udazkena bitartean ateratzen da, bakarka edo talde txikietan urkien



azpian, nahiz eta "Pupulus" motako zuhaitzen azpian ere aurki daitekeen

JANGARRITASUNA: mami gutxi du eta harroa, zurixka da eta moztean ez du kolorerik aldatzen, beharbada ñabardura arrosaren bat izan ohi du; perretxiko usaina du eta zaporea geza.

ARDAGI MEHEA (*Lenzites betulina*)

DESKRIBAPENA: karpoforoak 12 zentimetroko luzera, 5 cm-ko zabalera eta 0,5-2 zentimetroko lodiera izan dezake, semizirkularra edo abaniko-formakoa da, ertza zorrotza, leuna edo gingilduna du, gainerako zatiaren kolore berekoa. Azala leuna edo konkorduna da eta erradialki ondultua, ilupaduna edo iletsu samarra, hasieran krema-zuria da, gero grisaxka bihurtzen da eta tarteka kolore hauez eta marroi-gorrixkaz edo ardo-gorritz tartekatua; ale helduetan ilupa arrabek estaltzen dute eta ondorioz kolore berde



berezia izaten du.

Esporak zilindrikoak edo arrantza-formako elipsoidalak dira, leunak eta hialinoak.

Mamia zurixka da, zuntzekoa eta gogorra. Himenioa erradialki antolatutako laminek osatzen dute, anastomosatuak eta ertzerantz urkilatuak, ertza leuna eta ondultua edo zertxobait krenulatu dute, hasieran zuriak dira eta gero krema-zuri edo krema-okrexkak.

HABITATA: urteroko espezie han nahiko arrunta da eta urte guztian zehar ateratzen da hostozabalen egurretan. Taldeetan sortzen da, aleak bananduta edo zenbaitetan teilakatuta, albotik substratuari erantsita egoten dira disko-formako gune batetik.

JANGARRITASUNA: espezie honek ez du interes gastronomikorik mamia zuntzekoa duelako.

KATAMOTZ-BELARRIA (*Lentinus tigrinus*)

DESKRIBAPENA: perretxiko honek egitura elastikoa du. Bere txapelak inbutu forma du. Zurixka eta mehea da, eta gainetik tigre-azal itxura ematen dioten ezkata txiki marroiak edo beltzak ditu. Orriak oso dekurrenteak dira, zuri-horixkak, eta ertza dentikulatua dute. Hanka mehea, kurbatua, txapelaren kolorekoa eta ezkata txikiz estalia. Beheko aldetik puntan bukatzen da eta gortina-



iturazko eraztun igarokorra du goiko aldean. Mami fina, mingar antza eta ia usainik gabea. Esporak ia zilindrikoak dira, ez amiloideak.

HABITATA: Euskal Herrian arrunta da. Taldeka ateratzen da, udaberritik udazkenara arte, zurzuri, sahats eta bereziki sagarrondoaren motzondo eta hautsitako adarretan.

JANGARRITASUNA: Nahiz eta pozoitsua ez izan, ez da jaten, zuntzeko egitura eta zapore mingarra baitu.

ANIS-BELARRIA (*Lentinellus cochleatus*)

DESKRIBAPENA: espezie hau taldeka ateratzen da beti, sorta batean pilatuta. 20 alekoak ere ikusi izan dira azpialdetik elkarri erantsita. Txapela marroia edo herboil-gorrixka da, hankarekiko eszentrikoa, eta alde batetik irekita dagoen inbutu baten antza du. Orriak arrosa-zurixkak dira, oso dekurrenteak, eta ertz denticulatua dute. Hanka txapelaren kolorekoa da eta luze-



tarako ildoak ditu. Mami zurixka da eta hurbiltzerakoan bere anis usaina soma daiteke. Espora zuriak, subesferikoak eta oso amiloideak. Espezie tipikoaren antz handia duen barietateak var. *Inolens* du izena eta honek adierazten duenez, anis usain gabekoa da. Orriak ez dira hain dekurrenteak gainera.

HABITATA: Euskal Herrian ez da arrunta. Uda-udazkenean ateratzen da, hosto erorkorreko zuhaitzen motzondo eta egur puska zaharretan, pagoan bereziki.

JANGARRITASUNA: ale gazteak jan daitezke baina zaharrak oso gogorrak eta lurrintsuegiak.

MARASMIELLUS ALBOSCORTICIS

DESKRIBAPENA: perretxiko hau txikia da; txapelak 1,5-2,5 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran ganbila, gero ganbil lau irregularra, sarritan ertz fina du, ildaskatua, barru alderantz kurbatua eta ondulatua. Azala leuna, kizkurduna, zuria, eta maiz erdialdea okre kolorekoa. Orriak oso bakanak, zainartekoak, irregularrak, ondulatuak, saretuak eta kolore zurikoak. Tolesak dirudite orriak baino gehiago. Hanka 2-3x0,2-0,25 zentimetrokoa, zilindrikoa, oina errabolduna edo, lausoduna, maiz kurbatua eta kolore zurikoa ale berrietan, beltza-urdina behealdea



ale helduetan. Espora fusiformeak edo ia zilindrikoak, leunak, gardenak eta ez amiloideak.

HABITATA: talde handietan erne ohi da zuhaitz, zuhaixka eta laharretatik eroritako adarka lehorretan. Espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami mehea, txapelean badenik ere ezin esan daiteke ia, zuria, usainik gabea eta zapo-re gozokoa. ez da jangarria.

ZIZA MORDOSKATUA (*Lepista caespitosa*)

DESKRIBAPENA: neurriari dagokionez, txikitik, ertainerako tarte horretan dago, txapelak 6-8 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran ganbila da, gero lautua eta azkenik zertxobait sartua erdialdean; ertza hasieran biribilkatua du, gero mehea, ondulatua, altzoduna, figuratua eta kanaltu samarra. Kutikula itsatsia, lehorra, matea, hasieran zurixka, gero marfil-krema kolorekoa, erdialdea ilunagoa eta zahartu ahala arrexka edo bihurtzen da. Orriak oso hertsia, ia itsatsiak edo dekurrenteak, makurrak, meheak, banagarriak eta tartekatutako



orri ugari; hasieran txapelaren kolore berekoak dira, gero, heltzean, arrosa zikin kolorekoak. Hanka, 6-10x0,5-1 zentimetrokoa, zilindrikoa da, oinaldea loditua, soropildurik haztean kurbatua, luzaran zuntzeksua eta ildaskatsua, lausoduna goiko puntan, zapore gozoa eta usaina berbera, irinaren edo espermaren ia antzekoa eta txarra; behatzez igurtzean areagotu egiten da usain hori. Espora eliptikoak, pittin bat garatxodunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da mordoxka trinkoak osatuz, mendietako larreetako belar artean edo hostozabal basoen ertzetan. nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: jangarri kaxkarra da.

LEPISTA GLAUCOCANA

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko espeziea da eta txapelak 10-12 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran hemisferikoa da edo koniko kamutsa, gero ganbila eta ondulatua, erdialdean konkordun samarra; ertza, berriz, kurbatua, leuna eta ondulatua. Azala banagarria, leuna eta matea; kolore gris-lilaxka zurbila edo grismore okrea, eta ertzak gehienetan zurbilagoak. Orri hertsia, itsatsiak, meheak eta estuak, txapeletik erraz bana daitezkeenak azkazalarekin harramaskatuz gero, tartekatutako orriska ugari, hasieran kolore zuri-lila zurbilekoak, gero, esporak heltzean, arrosa kolorekoak. 5-10x5-2,5 zentimetroko hanka, zilindrikoa, maiz kurbatua; oina, berriz, erdi errabolduna, hanka-azala lehorra, luzaran zuntzexka finez estalia, goiko punta lausoduna eta hanka guztia txapelaren kolorekoa. Espora eliptikoak, garatxodunak, arrosa kolorekoak eta ez amiloideak.



HABITATA: udan eta udazkenean jaiotzen da talde edo zirkuluak osatuz, konifero-basoetan. Nahiko espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: mami lodia eta biguna txapelean, zuntzeksua, harroa eta zurixka hankan; zaporea, berriz, gozoa baina ez atseginegia, eta usaina mentol-irin-esperma nahasketarena, nazkagarria.

KLITOZIBE EZPAINGORRI (*Lepista inversa*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko perretxikoa da, eta txapelak 8-10 zentimetroko diametroa izan dezake; hasieran ganbila, gero lautua eta azkenik kopa edo inbutu antzekoa; ertza mehea du, biribilkatu-biribilkatua eta ondulatua, baita ale helduetan ere. Azala itsatsia, hezea, higrofanoa, leuna, matea eta distiratsua, zuntzexka erradialez estalia; txapela guztia kolore arrexka-zurbilaren eta arrexka-gorrixkaren tartekoa hezetasunaren arabera. Orri hertsia, meheak, makurrak, banagarriak, oso dekurrenteak, hasieran krema-okre kolorekoak, gero beix-gorrix-



kak. Hanka 7-10x1-1,5 zentimetrokoa, zilindrikoa, gehienetan kurbatua, oin estutua, hasieran betea, gero leizetsua; azala matea, krema-okre kolorekoa, luzaran zuntzexka fin iluntzeagoz estalia; oina, berriz, mizelioaren metaketaz estalia. Esporak globo antzekoak, azkenik garatxodunak, gardenak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda eta udazken aldean jaiotzen da, konifero-basoetan, eroritako orratzen artean eta "sorgin korr" galantak osatzen ditu. Espezie arrunta da gure Herrian.

JANGARRITASUNA: mamia mehe samarra, hauskorra, hankan zuntzekoa, kolore zurixkakoa, zapore gozo arruntekoa baina astringente samarra; usaina, berriz, Marasmius oreades gogorarazten diguna.

ADARRETAKO MARASMIOA (*Marasmiellus ramealis*)

DESKRIBAPENA: basidiomizete hau txikia da eta txapela ez da ia 0,5-1 zentimetroko diamentrorara iristen. Hasieran ganbila da eta azkenean zertxobait lautua; erdialdea sartua du eta ertza pittin bat ondulatua. Azala edo kutikula zurixka da eta erdialdeko zatia krema-okrea, leuna, matea eta pittin bat ondulatua. Orriak hertsia samarrak, pittin bat dekurrenteak eta itsatsiak dira. Tartekatutako orriska ugari dituzte eta zurixkak izateaz gainera, isla arrosak izaten dituzte. Hanka txikia da, 2-3 x 0,1-0,2 zentimetrokoa, kurbatua eta goiko zatian zurixka bada ere, behekoan arregorrixka da. Mamia oso mehea da, ia mintzekoa, zurixka, gozoa edo pittin bat mingotsa izaten da eta ez du usainik. Esporak luzatuak, eliptikoak edo ia zilindrikoak, hialinoak, ez amiloideak, leunak eta ttantta-formakoak dira.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da, talde soropilduetan, hostozabal askoren adaxka erorien gainean, eta era berean, sasi, ipuru eta ote hilen gainean. Perretxiko arrunta da.

JANGARRITASUNA: txikia eta



mintzekoa izateagatik ez da jangarria. Marasmiellus generoko espezieek, bere izenak garbi adineratzen duen bezala, Marasmius generokoan antza dute baina azken hauek ez bezala, hezetasunean ez dira berriro sortzen eta gainera txapelaren azaleko ezaugarri mikroskopikoak ezberdinak dituzte.

ZIZA HANKAURDINA (*Lepista nuda*)

DESKRIBAPENA: txapela ganbila eta mamitsua da, eta diametroa 15 zentimetroko diametroa izan daiteke. Bere kolorea urdin-morea da, marroiarekin nahasirik. Ertza biribilkatu antza edo oso biribilkatua. Orriak hertsia eta dekurrente samarrak edo oso dekurrenteak. More-lila kolorekoak dira eta aise aska daitezke txapeletik. Hanka betea, zuntzekoa, elastikoa eta nahiko eta zuntzekoa hankan. Lurrian eta fruta usaina du. Esporen kolorea arrosa antzekoa da. Beren forma eliptikoa da eta garatxodun samarra da. Badira antzeko Lepistak: Lepista glaucocanank kolore zurbilagoa du, luilagriska. Lepista sordida, higrofanoa eta ez hain mardula, lorategietan eta ongarriztatutako lekue-



tan atera daiteke. Zenbait Cortinarius morearekin nahas liteke, baina hauek, nahiz eta jangarriak ez izan, ez dira kaltegarriak. Azken hauek gazteak direnean, hankaren goialdean gortina dute eta helduak direnean, orri moreak marroi bihurtzen dira esporak heltzen direnean. eskuarki Lepista generoan erraza da orriak azkazalez askatzea.

HABITATA: ziza hankaurdina perretxiko arrunta da, bai udazkenean eta bai neguan. Batzuetan udaberrian Euskal Herriko pinudietan ere ateratzen da, eta baita basoen ondoko belardietan edo hostozabalen basoetan ere.

JANGARRITASUNA: jangarria denez, euskal perretxikozaleek asko preziatzen dute espezie hau.

LIMACELLA ILLINITA

DESKRIBAPENA: txikia da, hasieran kanpai-formakoa, gero ganbila, 8 zentimetroko diametroa izan dezake. Bere kutikula oso likatsua edo lingirdatsua da, kolore zurikoa, erdialdea pixka bat okrea eta muzilago koloregabe eta sendo batek estaltzen du, hankari lotua dagoena ale berrietan errezel partzialaren edo eraztunaren bidez hautsi aurretik. Orri meheak, hertsia, ia libreak eta kolore zurikoak ditu. Hanka 6-10 x 0,5-1 zentimetrokoa, zilindrikoa, lingirdatsua, batzuetan kurbatua edo igarokorretik oinera arte. Mami zuria, mehea eta biguna, usain atsegina eta irin-zaporea, oso ezaugarri komuna Limacella generoko espezie-rik gehienetan. Esporak globo-antzekoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, mendiko koniferoen basoetan (Nafarroako Pirinioak), gehienetan lur azidoetan. Oso espezie arraroa da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: kalitate



eskaseko jangarria da, likatsuegia izateagatik. Badira zuriak eta likatsuak diren beste espezie batzuk nolabaiteko antza izan lezaketenak, esate baterako, Hygrophorus eburneus izenekoak, azken honen bereizgarriak dira pagadietan haztea eta ez koniferoen basoetan, txapela eta hanka hain likatsuak ez izatea eta, azkenik, bere txapela hain kanpai-formakoa ez izatea.

LARRAMENDI-ZIZA (*Lepista panaeolus*)

DESKRIBAPENA: txapela hasieran ganbila da eta gero laua. Bere kolorea errauts-grisa da, baina ilunagoa erdialdea. Ertza ondulatua eta biribilkatua da eta orban biribil eta ilunagoak ditu. Orriak hertsiaik eta dekurteak dira eta aise askatzen dira txapeletik. Beren kolore gris-horixkak isla arrosak ditu. Hanka eszentriko samarra da, noizbehinka kurbatua, oinaldean lodiagoa, zuntzekoa eta txapelaren kolorekoa. Esporak garatxodunak, elipsoidalak eta bere kolorea arro-



sa antza. Lepista caespitosarekin nahas liteke. Honen aleak ere belardietan ateratzen dira eta talde txikiak osatzen dituzte, baina hauen kolorea zurixka da eta batzuetan erdialdean larru kolorea du, eta beren esperma-usain txarrarengatik ezin dira jan gainera.

HABITATA: perretxiko hau udazkenean ateratzen da, taldeka edo zirkulu handiak osatuz, mendiko belardietan, basoetatik kanpora.

JANGARRITASUNA: arrunta da gure mendiko belardietan, eta jangarri ona.

Mamia lodia da, kolore zuri-grisa. Zapore gozoa du eta irin usaina.

LEPISTA PERSONATA

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko espeziea da, txapelak 12 zentimetroko diametroa izan dezake, hasieran hemisferikoa, gero ganbila eta azkenik lautua, eta sarritan erdialde sartukoa; ertza, berriz, hasieran biribilkatua, gero zorrotza eta ondulatua; azala, berriz, orriak gainezkatuz. Azal lehorra, zetakara, leuna eta matea, kolore beix-grisa hasieran, gero arrexka-grisaxka, kolore morearen edo urdinaren inolako arrastorik gabea; ertza, berriz zurbilxeagoa. Orriak muxarratuak edo erdi dekurteak, lodiak, hertsiaik, hasie-



ran zurixkak, gero arrosa kutsu arin batekin. 6-10x1,5-3 zentimetroko hanka, zilindrikoa, oina lodiagoa, lehorra, luzaran kolore urdin-lila zoragarria duten zuntzez estalia. Espora eliptikoak, azkenik puntadunak, gardenak eta ez amiloideak.

HABITATA: bakana Gipuzkoan eta Bizkaian, ez ordea Nafarroan eta Araban. Berandu ateratzen den perretxikoa da, Urriaren erdialdetik neguko lehen hotzak egin arte ongarririk gabeko belar artean, mendiko larre, baso-ertz, parke eta lorategietan zirkuluak osatuz.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa eta sendoa; kolore zurikoa, bai txapelean bai hankan; usaina, berriz, leuna, eta urren zapore gozo eta atsegina.



LEPISTA SORDIDA

DESKRIBAPENA: neurri txikitik ertainerako tartean dago eta txapelak 6-8 zentimetroko diametroa izan dezake. Hasieran kanpai-formakoa da, gero ganbila eta azkenik lautu samarra. Ertza barnerantz kurbatua edo biribilkatua ale berrietan; mehea, ondulatua eta gardenasunez ildaskatu samarra helduetan. Kutikula banagarria, higrofanua, hezea, zetatsua eta matea, gris-moretik haragi-arrekkara aldatuz eta eguraldi lehorra denean margultzeko joera du. Orriak ez oso hertsiaik, ia itsatsi-dekurteak, meheak, goranzkoak eta txapeletik aise bana daitezkeenak, tartekatutako orri



ugariz, hasieran margulak arrosa-lila kolorekoak eta gero morexka- arrexka edo arrexka zikin kolorekoak. Hanka 4-6x0,3-0,7 zentimetrokoa, zilindrikoa, askotan ondulatua edo altzoduna, kurbatua soropildurik hazten bada, azala lausoduna goiko puntan, gainerakoa luzaran zuntzekatsua eta txapelaren kolorekoak.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da, askotan soropildurik edo mordoxkan belar artean, basoetako argiguneetan edo ertzetan eta abere simaurrez ongi ongarriritako zelaietan. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian

JANGARRITASUNA: mami trinkoa eta lodia txapelaren erdian, mehea ertzetan eta zuntzekoa hankan; margul kolorekoa eta zapore gozoa baina mingotsa eta usain ahula baina txarra.

LEUCOPAXILLUS CANDIDUS

DESKRIBAPENA: neurri handikoa da, bere txapelak 15-20 zentimetroko diametroa izan baitzake, hasieran ganbila da, gero lautu samarra eta azkenik sartua erdialdean; ertza hasieran biribilkatua du eta gero kanaltsu samarra. Kutikula lehorra, leuna, hasieran zuria eta gero zuri-krema kolorekoa. Orri hertsiaik, anastomosatu samarrak, txapeletik erraz bana daitezkeenak atzazalez urratzean, dekurteak eta zurixka kolorekoak. Hanka motza, 6-8x2-3 zentimetrokoa, zilindrikoa, oinaldea ia erraboiduna, betea, azal zurixka eta luzekako zuntzez estalia eta punta aldea lausoduna.

Espora eliptikoak, leunak, hialinoak eta amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da mendiko larreetan edo mediterraneo-klimako koniferoen basoetan. Espezie arraroa edo erdi arrunta da Euskal Herrian; Gipuzkoan eta Bizkaian mendiko larreetan sor litezke, baina



arruntagoa da Araban, Nafarroan eta hauen inguruko probintzietan.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa, lodia eta gogorra, ebakitzean zuria, gero pittin bat okrea, espermaren edo irinaren usain pixka bat du eta zapore gozoa eta gero pittin bat mingotsa.

BITIGAR MINGOTS (*Leucopaxillus gentianeus*)

DESKRIBAPENA: neurri ertainekoa da, bere txapelak 12 zentimetrainoko diametroa izan dezake, hasieran ganbila da, gero lautua eta sartua erdialdean, irregularra, ondulatua eta ertza biribilkatua hasieran, gero zuzena eta ertz kanaltsua. Kutikula matea da, leuna, arre-gorrixka edo "adri-lu" kolorekoa eta erdialdea ilunagoa. Orriak herziak, meheak, banagarriak, zeharkakoak, itsatsiak edo ia dekkurrenteak, hasieran zuriak, gero krema kolorekoak, herdoil-orbanetz. Hanka 6-8x2-3 zentimetrokoa da, zilindrikoa, oinalde klaborformea,



hasieran betea, leizetsua gero, azala matea, zuria eta erraboila okrea. Espora hialinoak, leunak, arrautza-formakoak edo ia eliptikoak, garatxo amiloide finez estaliak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, bai konifero-basoetan bai hostozabal basoetan. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa du txapelean, zuntzekoa hankan, kolore zurikoa, kutikularen azpian pittin bat arrosa kolorekoa, irin-usaina eta zaporea benetan mingotsa.

TRIKUPUTZA (*Lycoperdon echinatum*)

DESKRIBAPENA: espezie honen fruitu-gorputzak 3-5 zentimetroko altuera du. Bere forma globularra da, piriforme samarra batzuetan, estuagoa oinalderantz. Sasi-hanka motz konikoa du. Kanpoko geruza edo exoperidioa zurixka da hasieran eta gero marroia, tente dauden orratz luzez estalia, 3-5 zentimetroko luzerakoak dira, puntetatik elkarri loturik askotan. Punta hauek erorkorrak direnez, azala sareturik uzten dute erortzean. Endoperidioa mintzaira da,



hasieran zurixka, gero arrea, eta esporak heldu ondoren ateratzeko zuloa irekitzen zaio goitik. Gleba hasieran zuria eta mamitsua da eta gero, kolore marroi-purpura hartzen duenean, haustu egiten da. Espora okre, garatxodun eta globularrak ditu. Lycoperdon guziek bezala, kapilizioa du esporekin nahasirik. Lycoperdon umbrinum eta Lycoperdon molle berdintsu samarrak dira, eta exoperidioan eztenak badituzte baina tikiagoak, eta hauek erortzerakoan ez da exoperidioa saretua gelditzen, leuna baizik. Aise ezagutzen da, gaztainondoetatik eroritako fruituak baitirudite.

HABITATA: udan eta udazkenean kare-lurretan ateratzen dira talde txikitik, pagadietako lur hazkorrean. Gasteromycetes hau ez da batere arrunta Euskal Herrian

JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

ASTAPUTZ GONADUNA (*Lycoperdon mammaeforme*)



DESKRIBAPENA: ez da oso espezie txikia, fruitu-gorputzak 7 zentimetroko altuera izan baitezake. Udare-forma du, kanpoko geruza matazatu eta zurixka da, ale berrietan karpoforo guztia estaltzen du, baina pixkanaka-pixkanaka desagertu egiten da ia erabat erditik gora, baina ez erditik behera, eta barruko mintza ikusteko moduan gelditzen da; hau zurixka edo beix-arrosa da, leuna baina ezten finez estalia, goiko aldean ostioloa edo poroa du. Gleba edo karpoforoaren barruko alde hasieran zuria eta trinkoa da, zahartzerakoan horixka-arrexka bihurtzen da. Esporak globo-formakoak, arantzatsuak, ttantadunak eta

arrexkak dira.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da talde txikitik eta pagadietako orbel artean. Nahiko espezie arrunta da.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria. Erraza da ezagutzen, barruko mintza arrosa baita eta mataza hondarrak izaten baititu, beti pagoen azpian ateratzen da.

LYCOGALA EPIDENDRUM

DESKRIBAPENA: mixomizeto taldeko onddo txikia da; onddo artean klase berezi bat osatzen dute, zenbait botanikok ez du hartzen egiazko onddotzat. Egiazko onddoek dituzten hari-formako gorputza edo mizelioa ez dute aurkezten, bai ordea plasmodio delakoa, honek ugalganoak edo esporangioak eratzen ditu, argazkian agertzen direnak eta naturan aurki ditzakegunak izakin.

Laranja edo hori-laranjatu kolore biziko plasmodioa darma licogala delakoa, bizi den adartxo gainean, ugalketa unean 15 milimetrainoko esfera batzuetan kondentsatzen direla.



Esferatxo hauek bitan banatzean, masa likatsu bat agertzen zaigu, kanpo azaleko kolorez, geroxeago, heltzean, gogorra eta iluna, marroi argia edo ia beltza bihurtzen delarik; azala hau haustean, barruko dira, Lycoperdon onddoietan gertatzen zaienaren antzekoa.

HABITATA: espezie hauen esporangioak urte osoan zehar aurki daitezke, edozein zuhaitz motaren adar eta enborretan, nahiz eta hostogalkorrezko pago eta haritzetan nahia-gio izan. Penintsula osoan aski hedatua.

JANGARRITASUNA: bere neurriaz eta tinkotasunaz ez du balio gastronomikorik.

ASTAPUTZ UDAREKARA (*Lycoperdon pyriforme*)

DESKRIBAPENA: fruitu-gorputza udare formakoa da. Ez du hankarik, eta lurriari mizeliozko lokarrien bidez loturik dago. Exoperidio edo kanpoko geruza zurixka da hasieran, goialdetik garatxo edo orratz txiki-estalia. Gero garatxo hauek desagertzen joaten dira eta erabat marroi horixka gelditzen da. Endoperidioa hasieran zurixka da eta gero grisaxka, eta goialdean puntako poroa irekitzen da espora helduak ateratzeko. Gleba hasieran zuria, mamitsua eta trinkoa da, baina gero horixka berdexka eta azkene-



an marroia hausten denean. Esporak hori-berdeak, txikiak eta leunak dira eta forma globularra dute.

Lycoperdon generoko perretxikoen artean hau da ezagunena eta arruntenetakoa.

Antzeko *Lycoperdon* batzuk badaude, baina denak lurrezko zoruan ateratzen dira, ez egurretan, eta denek espora garaxodunak dituzte gainera, ez leunak.

HABITATA: udaberriaren erdialdean agertzen da eta udazkenaren bukaera arte irauten du. Talde txikitik ateratzen da hostozabalen motzondo usteletan.

JANGARRITASUNA: gleba zuriko ale gazteak jan omen daitezke.

ASTAPUTZ PERLADUNA (*Lycoperdon perlatum*)

DESKRIBAPENA: bere fruitu-gorputzak 8 zentimetro-rainoko altuera du eta 6 zentimetro-rainoko zabalera. Forma ia esferikoa du eta parte honen azpian hanka zuri leunaren moduko oina du. Kanpoko geruza edo exoperidioa zuria da eta orratz piramidal hauskor erorkorrez estalirik dago. Orratz bakan hauek beste orratz motzagoek inguratzen dituzte, hertsia goak eta iraukorragoak direnek alegia. Endoperidio edo barrengo geruza zurixka da hasieran, gero arrea, eta goian



espora helduak ateratzen zuloa du. Hanka edo errezeptakuluaren oinaldea antzua da eta zuria eta zelulazkoa barrendik. Gleba hasieran zuria eta trinkoa da eta gero, marroia denean, haustu egiten da. Esporak arreak eta leunki garaxodunak dira eta forma globularra dute. Zenbait *Lycoperdon* berdintsua dira eta nahiko zaila izaten da horietako batzuk mikroskopiorik gabe bereiztea.

HABITATA: udan eta udazkenean talde handitan ateratzen da lur hazkorren gainean, lur azidoetan batez ere, bai hostozabal eta bai koniferoen azpian. Astaputz udarekararekin batera, hau da Euskal Herriko astaputzik ezagunena.

JANGARRITASUNA: gaztea denean, gleba zuria duen bitartean, jangarria da.

ASTAPUTZ ILUNA (*Lycoperdon umbrinum*)

DESKRIBAPENA: karpoforoak udare-forma du, eta 6 zentimetroko altuera eta 4 zentimetroko lodiera izan ditzake. Exoperidioa edo kanpoko azala arre-grisa da eta 0,5-1,2 milimetroko luzera duten ezten arrexka, gogor eta hertsiek estaltzen dute; aipatutako eztenez, puntak elkarri lotuta dituzte, ale berrietan, batez ere. Barneko azalak edo endoperidioak 1 milimetroko lodiera du eta zurixka izaten da ale berrietan eta zahartuz doan eran arrexka bihurtzen da; era berean, zulo bat ateratzen zaio goiko zatian; zulo horretatik irteten dira kanpora esporak



heldu direnean. Gleba edo mamia, hasieran trinkoa eta zuria da, gero, heltzen hasten denean, egitura harroa izateaz gainera arre-berdexka bihurtzen da eta azkenean, ale zaharretan, gleba haustuta eta marroia da. Glebaren behealdean azpigleba dago, antzua, zelulosaren egiturakoa, biguna, zuria ale berrietan, eta marroi-morexka zaharretan. Esporak arrexkak dira, globo-formakoak eta garatxo txikiak eta esterigmatik datorren apendizet batek estaltzen dituzte.

HABITATA: udan eta udazkenean ateratzen da, lur hareatsuetan gehienetan, koniferoen basoetan. Nahiko arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: ez da jangarria.

LIMACELLA GUTTATA

DESKRIBAPENA: neurri handiko espeziea da, bere txapela hasieran globo-antzekoa da, gero ganbila eta azkenik zertxobait laua, 15 zentimetroko diametroa izan dezake. Bere kutikula pixka bat likatsua da eguraldi hezea denean, lehorra eta matea eguraldi lehorra denean, beix-krema kolorekoa da, erdialdea ilunagoa eta librekoa, sabeldunak eta kolore zurikoak. Hanka indartsua, 10 x 12 zentimetrokoa, zilindrikoa, oinalde errabolduna eta azala krema-zuri eta mate kolorekoa da, eraztuna oso zabala, mintzekoa, zintzilikatua eta kolore zurikoa goialdean. *Limacella* generoko espezie guztiak bezala, ez du bolbarik, Amanitek bai. Mami lodia eta trinkoa txapelean eta zuntzekoa hankan, zuria, irin edo pepino usain nabarmena eta zapore gozoa. Esporak globo-formakoak, leunak, punta motz zorrotzak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da, mendiko baso hezeetan, bai koniferoen basoetan bai hostozabalen basoetan. Ez da



espezie arrunta gure Herrian.

JANGARRITASUNA: jangarria da. Hebeloma sinapizans oso antzekoa da, bai neurrian bai bere txapelaren kolorean, desberdintasunak hauek dira: honen orriak okreak dira eta ez zuriak, hankan ez du eraztunik, errefauen usain txarra eta ez irinarena eta, azkenik, oso zapore mingotsa du eta ez gozoa.

SARE ORRIZURIA (*Leucocortinarius bulbiger*)

DESKRIBAPENA: bere izenak dionez *Leucocortinarius* generoa kortinario baten ezaugarriak izateagatik bereizten da, baina espora zuri kolorekoa. Bere karpoforoak mamitsu eta erdiko itxurakoak dira, harizpiko kortina zuri ugari batez horniturik, zeinek eta txapelaren ertza eta txapela lotzen duen, Cortinarius generoan bezala, eta hauekin batera azpadun erraboldun hanka aurkeztuz, baina espora-jalkin zuri kolorekoak bereizten du, hori dela eta genero berri bat eratu da zein eta mikologoek ez dakiten non sartu,



zenbait genero eta familiatik pasatzen, gaur egun zenbait egilek Tricholomazeoa taldean sartzten du bere espora-jalkin zuri koloreagatik eta beste zenbaitek Kortinariazeo familian sartzten du, beste ezaugarriagatik.

Txapela ganbilak ditu, 4-6 zentimetroko diametrokoa, hasieran ertzak biratu, argi, larru argi, krema, arrosa edo marroi-gorrixka kolorekoak, erdirantz ilunagoa, azala likatsua gogor batez estalirik, kortinarioak bezala.

Mami trinko, lodi eta gogorra, zuri kolorekoa, usain eta zapore berezirik gabe.

Espora-jalkin zuri kolorekoa.

HABITATA: espezie arrunta, konifera orratz artean azaltzen da, pinudiak batez ere. Udazkenekoa.

JANGARRITASUNA: jangarria, baina bere eskas eta urritasunagatik interes gutxiakoa.

ARRAIN-ZIZA (*Macrocyttidia cucumis*)

DESKRIBAPENA: ezaugarriak nagusienak, bakailaogibel edo sardina usaina eta mikroskopioz ikusten diren zistidio handiak dira. Perretxiko honen txapelak 6 zentimetroko diametroa du. Hasieran konikoa da eta ezki-la formakoa gero. Txapeleko azala leuna, matea, higrofanoa eta balusatua da, eta bere kolorea marroi-gorrixka iluna. Ertza zurbilagoa da, okre-horixka, eta ildaskatua. Orri sabeldu, estu, altzodun eta ia libreak. Hasieran zurixkak dira baina gero arrosak, eta gorrixkak dituzte tarteka. Denek ertza zurbilagoa dute. Hanka mehea eta zilindrikoa, oinaldera eta meheagoa. Hankako azala balusatua da, marroi-gorrixka, goialdean argiagoa eta oinaldean beltza.

Espora leunak, arrosak eta eliptikoak dira. Makrozistidioak ditu. Espezie honen var. *Latifolia barietatea* tikiagoa da eta bere orriak zabalak dira, ez estuak, eta var. *Leucospora barietateak*, espora arrosak eduki beharrean, zuriak ditu.

HABITATA: nahiko arraroa da



perretxiko txiki hau udan eta udazkenean ateratzen da orbelaren gainean, bide ertzetan eskuarki, erreka ondoko leku hezeetan, bai hostozabal eta bai koniferoen basoetan

JANGARRITASUNA: mamia mehea, higrofanoa eta iluna da. Arrain urdinaren kiratsa dario eta arrain gordinaren antzeko zapore txarra du.

ZIZA ZAULI (*Lyophyllum agregatum*)

DESKRIBAPENA: txapelak 5 eta 12 zentimetroko diametroa du. Konbexua, gaztaroan ertzak biribilkatua, gero irekiago. Larru-kolorea, gris marroia horixka edo arre ilunezko ukituarekin.

Orriak meheak, itsaskorrak eta apur bat dekurrenteak. Lehenengo zurixkak, gero gris horixkak.

Hanka luzea nolabait, beste ale batzuen hankai atxikita, zurixka.

Mamia mehea, elastikoa, usain eta jakera atseginak.



Espezie kideak: esan dugunez forma anitzeko da, beraz forma eta barietate asko dago, beren morfologia, sortze eredu eta mikroskopiko ezaugarrietan bereizten direnak.

Lyophyllum formosum barietateak orri gris kolorekoak ditu, hankatik loturiko talde faxikulatuetan ageriz.

Lyophyllum loricatum barietatea arruntzena daukagu, bakarka sortzen da, txapela distira du, satinatua eta zuntzez nabarmenki marratua, zinbel eta flexible tinkotasunaz.

HABITATA: espezie arrunta, ezponda, errepide edo bideetako ertzetan talde faxikulatuak eratuz, nahiz belar artean, nahiz lurzoru hutsean; udazkenekoa, iraila hasieratik eta azaro erdi bitartean.

JANGARRITASUNA: barietate guztiak eta hauen antzekoak jangarri onak dira, nahiz eta batzuek mami gogorrekoak eduki.

LYOPHYLLUM TRANSFORME

DESKRIBAPENA: neurri ertainekoa da, bere txapelak 12 zentimetroko diametroa izan baitezake, hasieran ganbila da eta ertza oso biribilkatua du, gerora lautu eta ondulatu samarra. Kutikula arrekagrisaxkaren eta arrekabeltzaxkaren arteko kolorekoa, kolore bereko zuntzezka erradial finez estalia. Orriak erdi-hertsia, itsatsiak, askotan bifidoak, hasieran zurixkak, baina urdinuz eta gero igurztean beltzaxka bihurtuz. Hanka, 5-8x1-1,5 zen-



timetrokoa, klabiformea da, azala zuntzaxkatsua luzaran eta punta alde zurixka, gainerakoa beix-arrekakolorekoa eta zahartu ahala iluntzeko joera du. Espora triangelu formakoak, leunak, hialinoak eta ez amiloideak.

HABITATA: uda-udazkenean ateratzen da talde sortakuetan, gehienetan hostozabalen basoetan, baina baita koniferoen azpian ere. Nahiko espezie arrunta da Euskal Herrian.

JANGARRITASUNA: mami trinkoa, zurixka ebakitzean, baina ilunduz eta gero beltzuz airearen eraginez. Bere usaina nabaritu ere ez da egiten eta zaporea gozoa.






Arrain Editoriala

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz
euskaraz idatzitako lanarik handiena

ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK



ARRAIN EDITORIALA
TLF: 94 490 34 04
e-mail: arrain100@gmail.com
web: www.rrain.es



ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK
Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz euskaraz idatzitako lanarik handiena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

“Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundutakoa”